

ELKARRIZKETA: PERE PUJOLAS • EKARPENAK: JUUL 2010 • ESPERIENTZIAK:
BOLIVIAKO ESKOLETAN • GALDEIDAZUE: ESTHER MUGERTZA ETA YOLANDA
OLASAGARRE • OTEIZA MUSEOA • ATZEKO ATETIK: MADDALEN ARZALLUS

hh
hik hasi

149

4 EURO • 2010EKO EKAINA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



GAIA

Hautaprobak
Baxoa eta Selektibitatea

+6 urte




Pirritx, Porrotx
eta Marimotots



PIRATAK

Mitxel Murua • Julen Tokero
ANE PIRATA



Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek pirata izatea erabaki dute Ane Pirataren tripulazioan. Ez da hain erraza pirata izatea, ordea; maisu on bat behar da eta Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek munduko piratarik ausartena eta jakintsuena dute maisu: Patakon.

Gure LITERATURA zutaz mintzo da

www.elkarargitaletxea.com

elkar

+6 urte

Gizateriaren historian jatorrizko ipuinik bada, Adan eta Eba paradisuari bizi zireneko hura da, maitasun istorio haren kontakizun eleberritua da ipuin hau, ama batek bere alabari kontatua.



IPURTARGIAK PARADISUAN
Mariasun Landa • Maite Gurrutxaga

+6 urte



Baziren behin hiru triku ume: Kirikiño, Sagarroi eta Kirikolatx, ama galduta basoan bakarrik geratu zirenak, ez jateko ez edateko gabe. Horregatik erabaki zuten mendiaren beste puntara abiatzea...

Xabier Mendiguren • Nuria Hernández

HIRU TRIKU, HIRU TRUKU

aurkibidea



8
gaia

HAUTAPROBAK

Unibertsitate ikasketak egin nahi dituzten Hego Euskal Herriko ikasleek selektibitatea gainditu beharko dute, eta Ipar Euskal Herrikoek, aldiz, Baxoa.



16
elkarrizketak

PERE PUJOLAS

Vic-eko Unibertsitateko Hezkuntza Fakultatean, Hezkuntza Inklusiboko masterra eta doktoretza programa koordinatzen ditu. Era berean, guztiontzako eskolako aniztasunaren trataera ikertzeko lanean ari den sarea koordinatzen du.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

HAUTAPROBAK

SELEKTIBITATEA ETA BAXOA

16 elkarrizketa

PERE PUJOLAS

25 esperientziak

Jul 2010. Haur eta Gazte literatura euskaraz

26 ekarpenak

Boliviako eskoletan. Behar bereziko hurrekin lanean

30 galdeidazue

Nafarroako hainbat ikastetxetan euskararen erabilera sustatzen ari zarete. Nola?

Esther Mugertza eta Yolanda Olasagarre

33 berriak

40 nora joango gara?

Jorge Oteiza Museoa

Oteiza bere espazioan

42 Atzeko atetik

Maddalen Arzallus

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Izaskun Beraza eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko eta gai nagusiko irudiak: Argazki Press. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2010-05-26). Kopurua: 3.700 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Harpidetza orria



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararazten ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala ekaina

Egunkaritik Udalbiltzara hezkuntzatik pasatuz



Nork uler lezake ikastetxeko hezkuntza proiektua garrantzitsua dela esatea, eskola inklusiboaz aritzea, eta, aldi berean, garatua, gurasoekin adostua, prestijio duena, eta askorentzat eredu den errealitatea administrazioak ezabatzea?

Eskola inklusiboarena da nazioarteko erakundeetatik datorkigun hezkuntzarako mezu nagusienetakoa. Gure artean ere, gero eta zabalduago dagoen ideia da eskola barneratzailearena. Izan ere, ikuspegi inklusiboak edo barneratzaileak eskola komunitate osoa ukitzen du, denak hartzen ditu kontuan eta ikasleen garapen osoa biltzen du.

Ikasle guztien beharretatik abiatuz eta eskola komunitatea inplikatur, era guztietako emaitzak hobetzen dira: jendearen arteko harremanak, giroa, errespetua, parte hartzea, konpromisoa, eta, nola ez, emaitza akademikoak.

Gure herria ez da zerotik abiatzen, hamarkadak baitaramatza bide hori egin nahian. Ikastolek abiatu zuten herritarren inplikazioa eta hezkuntzaren berritzea, eta, pixkanaka, beste eskola esparruetara zabaltzen joan da.

Pentsa dezagun, halako eskola garatzeko, ez al da ezinbesteko baldintza eskola bakoitzak bere hezkuntza proiektua ongi adostua izatea?

Guk uste dugu baietz. Ikerketen arabera, behintzat, hori da hezkuntza arloan aurreratzeko beharrezkoa den baldintzetako bat.

Hala ere, eskola bakoitzaren ezinbesteko garrantzia badu ere, herri bezala normalizatzen joatea oso osasuntsua izango da, ezta? Horregatik, herri ikuspegia izanda, lanean ari dira hainbat eskola eta ikastola talde, ikasleen mugimendu, langileen sindikatu, gurasoen elkarte eta abar.

Normalizazioak egituratze instituzionala behar du. Horretan ari zen Udalbiltza. Instituzioetako ordezkariekin osatu zen erakundea, eta gorputzen ari zen unean jaso zuen erasoak bere egitekoa bertan behera uztea behartu zuen.

Egunkariaren itxierak asaldatu gintuen, hezkuntzarako tresna egokia biltzen. Udalbiltzaren judizializazioak, era berean, asaldatu gintuen, Euskal Herriko lurraldean hezkuntzan gartzen diren egitasmoen babesle izan biltzitekeen.

Orain, zazpi urte itxaron ostean, epaiketa izango du Udalbiltzak. 1.800 hautetsik eman zioten babesera erakundea sortzeari eta haien 22 ordezkari izango dira epaituak uztailearen 15etik aurrera Madrilen. Jakin denez, Udalbiltzaren aldeko testigantza ugari kendu dituzte epaileek; nabarmentzeko, nazioarteko ordezkariena eta Iparraldekoena. Antza, Iparraldea ere nazioartea da.

Gure hezkuntzak garatzeko zailtasun handiak ditu. Nork uler lezake ikastetxeko hezkuntza proiektua garrantzitsua dela esatea, eskola inklusiboaz aritzea, eta, aldi berean, garatua, gurasoekin adostua, prestijio duena, eta askorentzat eredu den errealitatea administrazioak ezabatzea? Horixe ari da gertatzen Hernaniko Langile ikastolako DBHn.

Bi ekimen beharrezkoak genituenak eta nazioarteko irizpideen aurka itxi dizkigutenak. Behar ditugu ikastetxeen hezkuntza proiektu propioak eta behar ditugu gure instituzioak!

kronika

Konrado Mugertzaren lekukoa hartu du Maria Luisa Garciak Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Kontseiluko presidente karguan. Lekuko aldaketa irudikatu zutenean, aurrekoaren bide berdina jarraituko duela hitzeman zuen presidente berriak. Besteak beste, kargu horretan jardutea “izugarritzko ohorea” dela adierazi zuen, eta lehenbailehen hasiko dela “normaltasunez” lanean. Bere lehenengo egitekoa Eskola Kontseilua osatzen duten eragileen ordezkari guztiekin biltzea izango da. “Haien ideien, kezken eta asmoen berri izan nahi dut, eta nik nireak helaraziko dizkiet”. Erakundearen helburua “euskal hezkuntza sistemaren etengabeko hobekuntza” dela azaldu du. “Eskola Kontseilua hezkuntzaren behatokia da, baita ideia berrien sorlekua ere. Horregatik, Kontseiluak lasaitasuna eta denbora behar du lan egiteko, eta akordioak lortzeko” esan du.



Sindikatuaren arabera, irakasleen %60k baino gehiagok egin dute greba

ELA, LAB eta EILAS sindikatuen ustez, «oso arrakastatsua» izan zen joan den maiatzaren 25ean irakaskuntza publikoan egindako greba. Sindikatu hroiek emandako datuen arabera, Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen %75ek greba egin zuten; Bigarren Hezkuntzan, berriz, %60 inguruk. «Esanguratsua izan da, gainera, Haur Eskoletako Partzuergoaren barruan dauden irakasleen artean grebak izandako oihartzun handia, %80ek greba egin baitute».

Datu horiek eskuan zituztela, CCOO eta UGT sindikatuarekin akordio-rako sinatutako oinarri «atzerakoi eta murriztailea» alde batera uzteko eskatu zioten Hezkuntza Sailari. Azken horrek emandako datuak, aldiz, guztiz beste-

lakoak dira. Hezkuntza Sailaren arabera grebaren oihartzuna txikiagoa izan zen: %36koa. Lurralde lurralde, honako datuak eman zituen Celaaren sailak: Bizkaian irakasleen %33k egin zuten greba, Gipuzkoan %37k eta Araban %40k. Hezkuntza Sailaren ustez, «horrek agerian uzten du Euskal Eskola Publikoa hobetzeko irakasleen nahia».

Etetik ahalik eta hurbilen

Hiru sindikatuek deituta, hiriburu guztietan egin ziren protestak. Sindikatu deitzaileen arabera, azkenaldian Hezkuntza Sailak bere neurriak «inposatu» nahi izan ditu eta ez dute hezkuntza eragileen iritzia kontuan hartu: Bakerako Hezkuntza Plana, hiru eleko hizkuntza eredua eta curriculumetan egindako aldaketak, besteak beste.

Lan hitzarmenaren negoziazioarekin antzera gertatu dela salatu dute sindikatuek. Hala, gogorarazi dute datuzen urteetan ikasle eta ikasgela gehiago izango direla. «Hezkuntza Sailak, ordea, uko egin dio irakasle gehiago jartzeari. Alderantziz, proposatzen dituen neurriek irakasleen lan karga igotzea baino ez dute ekarriko».

Ordezkapenetan ere murrizketak izango direla salatu dute gehiengo sindikala duten sindikatuek «Orain arte baino egun bat berandago beteko dira ia gaixoaldi gehienak».

“Autoritatea ezin da inposatu, norberak irabazi behar du, langile ona izanaz, ikasleez kezkatuz, hezkuntza proiektua aurrera ateratzeko lan eginez, familiekin elkarlanean jardunez...”

Neli Zaitegi



Donibane Lohizuneko ikastolaren egoera larria salatu du zuzendaritzak

Kazeta.info webgunean Donibane Lohizune-Ziburuko ikastolaren egoeraren arriskuaren berri eman zuen maiatza hasieran ikastetxeko zuzendaritzak. Herriko Etxeak 2011ko ikasturte hasierarako eraikin berria izango zutela hitz eman zien duela urte eta erdi; baina oraindik egitasmoaren lehen pausoa ere ez dira eman.

Gaur egun ikastola hartzen duen eraikinaren egoera txarra izateaz gain «arriskutsua» ere badela salatu du zuzendaritzak. Orain arte Herriko Etxearen hitzari sinestuz ixilik egon badira ere «gezurra» agerian gelditzen ari dela ohartuta ikastolaren egoera kezka garria plazaratu nahi dutela adierazi dio Jean Laborde ikastolako presidentek *Kazeta.info*-ri.

«Duela 30 urte Herriko Etxeak denbora baterako eraikina utzi zuenean ez zen normetan, baina hamarkadak pasatu dira berri gabe eta egoera arriskutsua bilakatu da. Ez da afera politikoa, ikasle eta irakasleen osasuna arriskuan da», dio ikastolako presidentek.

Egoera lazgarria

Seaska, Egoitza –ikastolen eraikinen beharrak ezartzen dituen elkarte– eta Herriko Etxearen artean bilkura ugari izan ondoren duela 18 hilabete akordioa lortu zuten. «Ziurra zela erran ziguten. Baina berriro ere, azken 20 urteetan bezala, hitza ez dute atxiki».

Hitzarmen horrek ezartzen du eraikin berria ikastola orain kokatzen den eremuan egingo dela. Herriko Etxearen jabetza izanik ikastolak bertan izateko alokairua pagatu beharko luke ikasturtean zehar. Oraindik, baina, Herriko Etxeak ez du urratsik eman: “Lurraren ikerketan ez dira hasi, ez dute arkitektoarekin hitz egin eta ez dute ezta bilkurarik egin guri atzerapenaren arrazoiak zeintzuk diren esplikatzen».

Sabaitik ura erortzen da eta ur ihesak ere sarritan gertatzen dira ikastolako eraikin zaharkituan. Neguan hotz izugarria eta udan bero itogarria jasaten dutenez ikasle zein irakasleak etengabe eritzen direla ere salatu dute. «Konponketak beti denbora baterako izaten dira, baina horrela ezin da segitu».

Sarrigurengo eskolan (Nafarroa) lehen ziklora arteko haurrek baino ez dute euskaraz ikasteko aukerarik. Hortik aurrera euskaraz ikasten jarraitu nahi izanez gero, Mendillorriera eraman behar izaten dituzte gurasoek beren seme-alabak. Aurten, gainera, garraioak eta jangelak dakartzan gastuak ordaintzeko diru laguntzarik gabe utzi ditu Nafarroako Gobernuak. Zergak ordaindu bai, baina zerbitzurik jasotzen ez dutela salatzen protestaldia egin zuten maiatzaren 14an Iruñean, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza sailaren eraikinaren aurrean. *Mozketei ez. Non dago gure dirua?* lelopean egin zuten protesta ikastetxeko gurasoek. Haiekin batera LAB, ELA, CCOO, STEE-EILAS sindikatuetakoa eta Sortzen-lkasbatuazeko ordezkariak ere izan ziren. “Zergak ordaindu arren, oinarriko zerbitzurik ez dugu jasotzen: eskola garraiorik ez, pedagogorik ez, auzoan bertan nahi den hizkuntza eredia aukeraterik ez, jangela zerbitzurik ez...”. Gizarte justu baten oinarri diren hezkuntza eta osasun beharrak asetzeko eskatu zieten agintariei.

GAIA

Hautaprobak

Baxoa eta Selektibitatea





Ikasturte amaiera heltzen ari den honetan, ikastetxeetako gazteak gero eta urduriago ipintzen hasiak dira. Badator azken urteetan ahotan izan duten azterketa. Unibertsitate ikasketak egin nahi dituzten Hego Euskal Herriko ikasleek Selektibitatea gainditu beharko dute, eta Ipar Euskal Herrikoek, aldiz, Baxoa. Bidea ezberdina izango da bazuentzat eta besteentzat; guztiek, baina, helburu bera izango dute. Ahal duten bezain ongi egitea euren etorkizunari gogotik heltzeko.

Guillermo Etxebarria Baionako Bernat Etxepare lizeoko zuzendariarekin hitz egin dugu Ipar Euskal Herriko egoerari buruz. Eta Hego Euskal Herrian Selektibitateak izango dituen hainbat aldaketaren inguruko informazioa bildu dugu. Guztia ikuspegi orokor bat emate aldera.

Hautapoben inguruko hainbat zehaztapen

Ipar Euskal Herriko gazteek gainditu behar duten Baxoak edo Baccalauréat izenekoak, zein Hego Euskal Herriko gazteek egiten duten Selektibitateak helburu zehatz bat dute: goi mailako ikasketak ahalbidetzea eta unibertsiterako sarrera bideratzea.

Zer da Baxoa?

Baxoa, Frantziako Iraultzaren ondorengo garai nahasietan sortu zen, 1808. urtean. Napoleon Bonapartek ezagutza eta kultura goraiatu eta zabaltzeko ahaleaginean bultzatutako ekimena izan zen. Betiere, Frantziako Iraultzari lotutako balio berrien eskutik: eskola errepublikanoa, laikoa, publikoa eta derrigorrezkoa. Baxoa, orduan, Europako azterketa zaharrena da. Hasieran ahozko proba izan zen, baina 1846tik aurrera azterketa idatziak ere ezarri ziren.

Orduetik, eta belaunaldiz belaunaldi, Frantziako Estatuko ikasleentzat mugarrira izan da. Heldutasun akademikoaren proba tradizionala izan da Frantzian, lortutako ikasketa maila egiaztatzeko balio duena, geroko ikasketak egin ahal izateko ateak zabaltzen dituena.

Baxoa eginiko ikasketen balioa ziurtatzen duen proba da. Gainditu ezean, beraz, eginiko ikasketek ez dute balio ofizialik. Baccalauréat diploma

eskuratuz gero, unibertsitatera joan izango da ikaslea.

Zer da Selektibitatea?

Hego Euskal Herriko gazteek egiten duten azterketa ez da Ipar Euskal Herrikoena bezain zaharra, baina hainbat hamarkadako historia dauka. XX. mendearen bigarren zatian ezarri zen hautapoba hori, aurretik egiten zen "errealida" ordezkatzuz. Selektibitatearen helburu nagusia unibertsiterako sarrera ordenatzea da.

Hainbat aldaketa izan ditu azken hamarkadetan, eta orain, Bolonia prozesua parez pare datorren honetan, aurrerago azalduko ditugun hainbat aldaketa jasango ditu.

Orain arte, Selektibitate probak 2006. urteko Hezkuntza Lege Organikoa izan du oinarri. Honakoa dio lege horrek 38. artikuluan: Espainiako unibertsitate ikasketak egiteko beharrezkoa da proba hau gainditzea. Batxiler tituluaren jabe izan behar da Selektibitatea egiteko. Gobernuak ezarriko ditu proba horren ezaugarri nagusiak, autonomia erkidegoekin eta Unibertsitate Koordinazio Kontseiluarekin kontsultatu ondoren. Era berean, Gobernuak arautuko ditu ikasleek unibertsitateetan plaza eskatzeko prozedurak, betiere hautapoben emaitzaren arabera.



G

Selektibitatea eta Baxoa

Zein da Ipar Euskal Herriko egoera?

Gauza jakina da Euskal Herriko gazte guztiak ez dutela unibertsitaterako jauzian bide berdina egiten. Hegoaldean Espainiako Hezkuntza Sistemak eta legediak ezarritako urratsei jarraitu behar diete, eta Iparraldean, aldiz, Frantziako Hezkuntza sistemaren arabera egiten dute ibilbidea. Ipar Euskal Herriko gazteek egiten duten bidearen inguruan hitz egin du Hik Hasik Guillermo Etxebarria Bernat Etxepare Lizeoko zuzendariarekin. Oso metro gutxian, gauza zenbat alda daitezkeen ikusi dugu.

Ipar Euskal Herriko gazteak 11 urterekin joaten dira kolegiara, eta han lau urteko ikastaldia egiten dute, ondoren lizeora jauzi egiteko. Horrela, Hego Euskal Herrian DBH Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila dena, Iparraldean lizeoko lehenengo urtea izango litzateke, Bigarrena deitzen dena.

Hego Euskal Herrian ez bezala, kolegioko lau urteen amaieran Brebeta izeneko azterketa egiten da Ipar Euskal Herrian, garai bateko “errealida” izango litzatekeena. Unibertsitatera joan aurretik egiten den azterketak Iparraldean Baxoa du izena, eta lizeoko hirugarren urtea bete ondoren egiten da; hau da, Terminala izeneko ikasturtearen ostean. Bizkaian, Araban, Gipuzkoan eta Nafarroan Selektibitatea litzatekeenaren baliokidea da. Baina bada bien arteko ezberdintasun nagusi bat: lizeoko hiru urteetako notek ez dutela inolako eraginik izaten Baxoko azken notan. Hegoaldeko ikasleen kasuan, aldiz, unibertsitatera sartu ahal izateko

IPAR EUSKAL HERRIA		HEGO EUSKAL HERRIA	
Baxoa		Selektibitatea	
Terminala	BATXILERGOA	Bigarren maila	BATXILERGOA
Lehena		Lehenengo maila	
Bigarrena	KOLEGIA	DBH 4	BIGARREN HEZKUNTZA
Hirugarrena Breveta		DBH 3	
Laugarrena		DBH 2	
Bosgarrena		DBH 1	
Seigarrena		LH 6	
Bosgarrena	LEHEN MAILA	LH 5	LEHEN HEZKUNTZA
Laugarrena		LH 4	
Hirugarrena		LH 3	
Bigarrena		LH 2	
Lehenengo		LH 1	

Batxilergoko ikaslearen espedientearen nota %60 balioesten da, eta Selektibitateak gainerakoa, % 40, ematen du. “Ipar Euskal Herrian, beraz, ikasle batek, ongi eginda izan ditzake Batxilergoko ikasketak, baina Baxoa gainditu arte ez du Batxilergorik izanen, nahiz eta nota izugarriak izan Terminalan”, nabarmendu du Etxebarriak. Beraz, azterketa bakar batean jokatzeko dute guztia Ipar Euskal Herriko ikasleek, “guzti-guztia”.

Bi zatitan

Dena den, ez dituzte Baxoko azterketa guztiak batera egiten, gehiegi izango liratekeelako. Zenbait gai lizeoko bigarren urtearen amaieran egiten dituzte, hau da, Lehena egin ostean. Beste guztiak, aldiz, Terminalaren amaieran. Zein arlo edo adar hautatzen den (Letretakoa, Gizarte eta Ekonomiakoa eta Zientziak arlokoa), azterketa gehiago edo gutxiago egingo ditu ikasleak Lehena amaieran.

Letretakoek, Lehena amaieran frantseseko azterketa –ahozkoa eta idatzia– zientzia orokorrekoa eta mate-

matika-informatika deitzen dena egiten dituzte. Zientzia ekonomikoak ikasten dituztenek, aldiz, frantsesa eta zientzia egiten dituzte. Eta Zientziak egiten dituztenek frantseseko azterketa egiten dute Lehena amaieran. “Azterketa horietan ateratzen dituzten notak kontuan hartzen dira, eta Terminalaren bukaeran Baxoko beste proba horiek pasatu ondoren ipintzen da amaierako nota”, dio Etxebarriak.

Kalifikazioak oinarritzat 20 hartuta ipintzen dituzte; horrela, 8 baino gutxiago duenak ez du inongo aukerarik izango. Berrito errepikatu beharko du azterketa hurrengo urtean. 8-10 arteko nota lortzen duenak idatziz gainditu dituen bi gai aukera ditzake, notak eman eta bi egunetara ahoz egiteko. “Errepe-xa” deitzen zaio. “Horiek ahoz pasatu eta, beharbada, 10era ailegatzeko aukera izan dezakete”. Azkenik, 10etik 20ra bitarteko nota eskuratzen duten ikasleek gainditzen dute Baxoa.

Beraz, Baxoa bi zatitan egiten dutela esan dezakegu. Lehendabiziko zatia %20 inguru kontatzen du amaierako notan, baina bereziki eragiten du



Guillermo Etxebarria

ikasketa ibilbidean. “Izan ere, norbait erdipurdi baldin badabil, edota ikusten badu Lehenaren amaieran egin dituen azterketetan desastre ibili dela, Terminalaren ostekoan, gainditu ahal izateko, nota aski handia atera beharko duela ohartuko da. Orduan, beharbada ikasturtea errepikatzea aukera dezake”. Horrela, Leheneko probak berriro egin ahal dituzte.

Publikoa vs pribatua

Behin Baxoa gaindituta, hau da, 10etik gora aterata, Frantziako edozein unibertsitate publikotara sar daitezke ikasleak. Unibertsitatearen esku gertzen da, ondoren, aukeraketa nola egin erabakitzea. “Medikuntza, esaterako. Nornahi joan daiteke medikuntza egitera. Eta, eman dezagun, Bordeleko Akademiaren 3.000 ikasle sartzen direla. Horietarik lehen urtea pasatuko dutenak ehun izango dira; hor eginen dute selekzioa. Oso aukeraketa gogorra duten ikasketak daude, eta, horretarako, badira unibertsitatean hasi aurreko unibertsitate eskolak edo prestatzeko eskolak”.

Beraz, unibertsitate publikoek

onartu egin behar dituzte izena ematen duten guztiak. Baina zer gertatzen da pribatuekin? Etxebarriak azaldu duenez, unibertsitate batzuetan, numerus clausus delakoa izaten dute. Zenbait salbuespen badiren arren, orokorrean ez da azterketarik izaten, eta, gehienetan, dosierren bidez eginen da aukeraketa.

Aurrez aipatu dugu lizeoko urteetako notek ez dutela eraginik Baxoko notetan, eta hala da, ez dute baliorik. Baina beharbada, unibertsitate pribatu batzuetan baliagarria izan daiteke, notak edo dosierra Baxoa pasatu baino lehen bidali behar izaten baitira horietara.

“Aldatu beharko dute”

Baxoa proba konplexua da, gai asko jorratzen dituena. Eta aurkezten diren ikasleen artean, % 70 inguruk gainditzen duela esan digu Etxebarriak (datu zehatzak ez diren arren). Dena den, horien artean ziurrenik izango dira urteren bat edo beste errepikatu dutenak.

Bernat Etxepare Lizeoko zuzendariaren aburuz, horregatik hasi dira, besteak beste, erreforma martxan jartzen. Lizeoko Bigarrean, Lehenean eta ge-

Baxoa azterketa konplexua da, gai asko jorratzen dituelako. Bi zatitan egiten da, eta batxilergoko emaitzek ez du eraginik azken notan

ro Terminalean erreformak datoz hurrengo ikasturteari begira, eta badu lotura Bolonia prozesuarekin: “Besteak beste, oinarritzko ikasketak gaitasuntan oinarrituko direlako. Lizeoetan ere horri begira ari dira, Boloniako jarraibideei jarraituz”.

Aldaketa edo erreforma horrek, zailtzarik gabe, eragina izango du Baxoko azterketan, Etxebarriaren ustez. “Erreforma, baina, aski sakona da, eta erresistentzia aunitzekin egiten ari da topo”, azaldu du. Nola? Zer? Ez dakite oraindik. Baina uste du derrigorrez aldatu beharko dutela Baxoa. Orain artekoa soilik edukien azterketan oinarritzen da! Ez da ez jarrerarik ez eta gaitasunik neurtzen. Eta azterketa gehienak, gainera, idatziz dira.



Baxoa eta Selektibitatea

Etengabe, oztopoei iskin eginez

Baxoa gainditzea nahiko da Frantziako unibertsitateetara joan nahi duten ikasleentzat. Baina zer arazo dute Hegoaldean ikasi nahi duten ikasleek? Hizkuntza, edukiak eta ebaluazioa hiru oztopo garrantzitsu dira.

Garai batean Hego Euskal Herrian egiten den Selektibitatea gainditu behar izaten zuten Bizkaian, Araban, Gipuzkoan edo Nafarroan ikasi nahi zuten Iparraldeko ikasleek. Eta azterketa hori, noski, gaztelaniaz pasatu behar izaten zen; Madrilen edo Parisen. Gainera, kanpokoentzat egindako programa bereziari jarraitu behar izaten zioten, hau da, ez zen Ipar Euskal Herriko programa. Horrela, beraz, bi oztopo handiri egin behar zieten izkin Iparraldeko gazteek: landu gabeko programa bati aurre egitea, eta arrotza zitzaizen hizkuntza batean, gainera.

Duela zortzi bat urtetik, baina, orain dela bi edo hiru urtera arte, UNED Espainiako Urrutiko Hezkuntzako Uni-

bertsitatearekin eta EAeko Eusko Jaurlaritzarekin egindako akordio baten bidez lortu zen azterketa horiek euskaraz eta Hegoaldean, UNEDen egoitza batean, egitea. Horrela, gaztelaniazko azterketak euskaratu egiten zituzten, eta ondoren, ikasleek egindako lanak berriro ere gaztelaniara pasatu, zuzendu ahal izateko.

Notetan alde nabaria

Duela bi edo hiru urte kaleratutako dekretu batek, baina, berriro aldatu zuen egoera. Horren arabera, orain, espainiarrak ez diren ikasleak haien herrialdeko diplomekin sar daitezke unibertsitateetara. “Frantziak eta Espainiak hainbat akordio sinatu zituzten, eta horien arabera, Baxoa gainditua zuena, izapide pila bat egin eta gero, UNEDen bidez sar zitekeen unibertsitateetara”, azaldu du Etxebarriak.

Horrek, baina, ez du erabat konpontzen ikasle horien arazoa. Izan ere, Euskal Herriko unibertsitate batzuetan eta Espainiako zenbaitetan ere, maila

Notak ipintzeko modua ezberdina denez, Iparraldeko gazteentzat ez da erraza izaten Hegoaldeko unibertsitateetan nahi dutena ikastea

izugarria dago Iparraldekoentzat. “Hemengoek, Baxoan gehienekoa 20 izanik, 14 ateratzea edo 16 ateratzea, Hegoaldean 7-8 ateratzea baino askoz ere zailagoa da. Hemen 16 ez du ia inor txok ere ateratzen. Notei dagokienez, beraz, oso zaila da gure ikasleentzat Hegoaldeko unibertsitateetan sartzea”, dio Bernart Etxepare Lizeoko zuzendariak. Nahi duenak, dena den, badi Selektibitatea egiteko aukera, baina Selektibitatea garai bateko baldintzetan. Esan nahi baita, gaztelaniaz, beste programa batekin... Are zailagoa.

Ahalmen urria

Hego Euskal Herrian ikasi nahi duten ikasleen kasuan, traba nagusia Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak afera honetan duten ahalmen eta indar eskasa da. Izan ere, azkenean, guztia Madrilen erabakitzen da. “Nahi izan genuen eta saiatu ginen unibertsitatearekin zuzenean ea zerbait egiten ahal zen. Unibertsitate autonomoak izanda, pentsatu genuen akaso posible izango zela, baina inola ere ez. Azken batean, ez dira autonomoak. Edozein lege organikok guztia zapaltzen du”.





Zer aldatuko da Hego Euskal Herrian?

Ikasturte honen hasieran, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako ikastetxeetako Batxilergoko irakasle eta ikasleak Selektibitatean izango diren aldaketei begira ipini ziren, eta urte osoa berrikuntza horietara moldatzeko prestatzen aritu dira. Aholkuak emanaz, batzuk, eta aholkuak jasoz, besteak. Izan ere, 1892/2008 Errege Dekretuaren aginduz hainbat gauza aldatuko dira. Besteak beste, Selektibitateak bi zati izango ditu aurrerantzean. Derrigorrezko fasea edo fase orokorra eta berariazko zatia.

Lehendabiziko zatian ikasle guztiek ematen dituzten lau irakasgaien azterketak (Euskara, Gaztelania, Atzerriko Hizkuntza eta Historia edo Filosofia) eta bakoitzak egin duen Batxilergo motaren arabera aukeratutako bigarren mailako beste ikasgai baten azterketa egin beharko dute. Guztira bost azterketa izango ditu fase orokorrak. Aurten, Atzerriko Hizkuntzari dagokion azterketa idatziz baino ez dute egingo, orain arte bezala. Baina 2012rako ahozko proba dago aurreikusita.

Berariazko zatia edo fase espezifikoa, aldiz, nahi duen ikasleak egingo du, eta kalifikazioa edo nota igotzeko baliagarria izango da. Egin duen Batxilergo modalitatearen arabera azterketak izango dira, eta ikasleak berak aukeratu ahal izango ditu.

Fase orokorra

Azterketa eredu aldatu egin da fa-

se orokorrean. Orain, azterketak bi aukera izango ditu, eta ikasleak horietatik bat hautatu beharko du. Edonola ere, aukera itxia izango da. Proba horien bidez, ikasleen heldutasuna eta oinarriko trebeziak neurtzea dute helburu, eta horretarako, honako hauek izango dituzte kontuan: mezuak ulertzea, hizkuntza erabiltzea ideiak aztertzea, lotzeko, laburtzeko eta azaltzeko, modalitateko irakasgai baten ezagutzak edo teknikak eta atzerriko hizkuntza bat oinarrian ulertzea.

Fase espezifikoa

Ikasleek ez dute derrigorrez egin behar, borondatezkoa baita, eta fase orokorrean lortutako nota hobetzeko balioko die. Helburua ikaslearen ezagutzak eta arrazoitzeko gaitasuna neurtzea da. Bereziki, unibertsitatean egin nahi dituen ikasketekin zerikusia duten arloetan.

Gehienez, hiru azterketa egin ahal izango dira fase espezifikoko honetan, eta ezingo du fase orokorrean egin duen modalitateko irakasgaia errepikatu. Ariketak aukera bakarra izango du, eta nota kontuan hartzeko, ikasleak 5 puntu edo gehiago lortu beharko ditu.

Proba gainditzeko zer?

Batxilergoko notaren eta fase orokorreko kalifikazioaren artean egindako batez besteko nota haztatuan (% 60 Batxilergoari dagokio eta % 40 fase orokorrari) 5 puntu edo gehiago lortuz gero, proba gaindituzat joko da, baldin eta ikasleak fase orokorrean gutxienez 4 puntu lortu baditu. Fase orokorra gaindituz gero, nota hori gorde egingo zaio ikasleari mugarik gabe; fase espezifikoko notak, berriz, azterketak egin eta hurrengo bi ikasturteetan bakarrik gordeko zaizkio.



Selektibitatea eta Baxoa

Fase espezifikoa egin ala ez?

Izatez, Batxilergoko modalitateak ez du mugatzen zein gradutara sar daitekeen ikaslea. Onarpen notak baldintzatuko du ikasle baten norgehiagoka duen gradu batean sartzeko duen aukera. Hau da, orduan izango du balioa Selektibitateko fase espezifikoan lortutako kalifikazioak.

Onarpen nota, beraz, eskari kopurua plaza kopurua baino handiagoa den graduetan erabiliko da plazak esleitzeko. Nota hori formula honen arabera kalkulatu da:

$$0,6 \times \text{BBN} + 0,4 \times \text{FOK} + a \times \text{O1} + b \times \text{O2} =$$

BBN Batxilergoko batez besteko notari dagokio eta **FOK**, aldiz, fase orokorreko kalifikazioari.

Ondoren, **O1** eta **O2** fase espezifi-

koetan gainditutako gaien artean bi kalifikazio onenak hartuko lirateke kontutan. Eta, azkenik, **a** eta **b** fase espezifiko azterketetako notak haztatzeko parametroak izango lirateke. Esaterako, honela zehaztu ditu koefiziente horiek EHUk Batxilergotik sartzen diren ikasleentzat: 0,2 graduaren jakintza-adarrari lotuta dauden eta oraingo sisteman nahitaezkoak diren gaietarako, eta 0,1 gainerako gaietarako.

Argibide orokorrak

Nola erabaki orduan, azterketaren fase espezifikoa egin ala ez? Bada, argibide orokorra ondorengoa litzateke: norgehiagokarik gabeko gradua egin nahi duen ikasleak ez du berariazko faseko azterketarik egin behar. Aldiz, norgehiagoka duen gradua egin nahi izanez gero komeni da fase espezifiko azterketa egitea.

Horrela, fase horretan egin beha-

Fase espezifikoan, graduaren jakintza adarrekin lotuta dauden gaien balio gehiago izango dute bestelakoek baino

reko azterketen gaiak hautatzerako orduan, komenigarria da lehenik eta behin kalifikazio onena lortzea espero den irakasgaiak berariazko atal honetarako uztea. Bestalde, egin nahi den graduaren ezagutza adarrari bereziki lotutako irakasgaiak hautatzea da onena. Izan ere, horiek balio handiagoa dute besteek baino.

Nota hobetzea

Ikaslea deialdi batean baino gehiagotan aurkeztu ahal izango da fase oro-

GAIEN ETA JAKINTZA-ADARREN ARTEKO LOTURA

Zientziak eta osasun zientziak

Ingeniaritza eta arkitektura

ZIENTZIAK

Biologia
Fisika
Kimika
Matematika II
Lurraren eta ingurumenaren zientziak
Elektroteknika
Industri-teknologia II

OSASUN ZIENTZIAK

Biologia
Fisika
Kimika
Matematika II

Matematika II
Fisika
Kimika
Biologia
Lurraren eta ingurumenaren zientziak
Marrazketa-teknikoa II
Diseinua
Enpresaren ekonomia
Industria-teknologia II
Elektroteknika



korreko kalifikazioa edo fase espezifiko gairen bateko kalifikazioa hobetzeko. Azken deialdian lortutako kalifikazioa hartuko da kontuan, betiere aurrekoa baino hobea bada.

Kalifikazioak berrikustea

Ikasleak uste badu bere azterketak zuzentzeko garaian ez direla behar bezala ezarri ebaluatzeko irizpide orokorrak, epaimahaiko presidenteari ariketak berriro zuzentzeko eskaera egin diezaike. Era berean, antolaketa batzordeari ere egin diezaike erreklamazioa ikasleak, baina, horrela eginez gero, bigarren zuzenketa eskatzeko aukera galduko du. Erreklamazioa egi-

teko epea hiru egunekoa izango da, nota argitaratzen den unetik hasita.

Bigarren zuzenketa ez du egingo lehenengo zuzenketa egin duen irakasle berak.

Azken emaitza bi zuzenketetan lortutako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da. Bi zuzenketetako kalifikazioen artean bi puntu edo gehiagoko aldea badago, hirugarren epaimahai batek zuzenduko du berriro azterketa ofizioz. Azken emaitza hiru kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da. Ikasleak azterketa ikus-teko eskubidea du, bigarrenez zuzendu eta gero. Bost eguneko epea izango du horretarako.

Hegoaldean aritzeko, hautaprobaren zati espezifikoak egitea gomendatzen zaie Iparraldekoiei ere

Eta iparraldekoak?

Selektibitateko fase espezifikoak zaildu baino ez du egiten Iparraldeko ikasleen euskaraz ikasteko aukera. Izan ere, Baxoko nota Selektibitateko lehen atal orokorraren parekoa baita.

Beti ere, Ipar Euskal Herriko ikasleek berriazko probak egiteko aukera izango lukete, baina gorago aipatutako baldintzetan: hots, erdaraz Parisen edo Madrilan eta beste programa bateko edukiei buruz. Beraz, ez da biderik egokiena nota hobetzeko.

Laburbilduz, honako baldintzak izango ditu Hegoaldean ikasi nahi duen Ipar Euskal Herriko ikasle orok:

- Sarbide kredentzialarekin eta hautaprobaren zati espezifikoak aurkezten gabe, hautaprobaren zati orokorreko notaren maila lor dezake, gehienez 10 puntu. Aldiz, hautaprobaren zati espezifikoak aurkezten bada, 4 puntu gehiago lor ditzake.
- Plaza mugagabeak dituen titulazio bat ikasi nahi badu, ez ditu behar hautaprobaren zati espezifikoan lortzen diren puntuak, baina titulazioak plaza mugatuak baditu bai.
- Hortaz, unibertsitateetan plazak lortzerakoan Hegoaldeko ikasleen lehiakortasun maila berean egoteko, hautaprobaren zati espezifikoak egitea gomendatzen da. Horixe da sarbide kredentzialaren nota igotzeko dagoen bidea.

GAIEN ETA JAKINTZA-ADARREN ARTEKO LOTURA

Gizarte eta lege zientziak

Artearen historia
Ikus-entzunezko kultura
Geografia
Latina II
Marrasketa artistikoa II
Matematika II
Biologia
Lurraren eta ingurumenaren zientziak
Gizarte zientziei aplikaturiko matematika II
Musikaren eta dantzaren historia
Literatura unibertsala
Diseinua
Enpresaren ekonomia
Marrasketa teknikoak II
Grekoa II
Fisika
Kimika

Arte eta giza zientziak

Artearen historia
Ikus-entzunezko kultura
Geografia
Latina II
Marrasketa artistikoa II
Musikaren eta dantzaren historia
Gizarte zientziei aplikaturiko matematika II
Literatura unibertsala
Diseinua
Análisi musikala II
Enpresaren ekonomia
Marrasketa teknikoak II
Grekoa II

pere pujolás

ELKARRIZKETA

Vic-eko (Bartzelona) Unibertsitateko Hezkuntza Fakultateko irakaslea

“Nazioarteko erakundeen arabera, hezkuntza sistema guztiek ikuspegi inklusiboa izan beharko lukete”



“Ikasgela inklusibo batean, ezin diogu eutsi aurreko egitura berberari. Hau da, ezin dugu jardun gela inklusiboa ez zenean bezala, edo aniztasuna hain handia ez zenean bezala. Beraz, beharrezkoa da gela barruko ekintzen egitura aldatzea. Eta ikaskuntza kooperatiboak horretarako malgutasuna eskaintzen du

”

Maiatzaren hasieran, 2010eko Berriztapen Jardunaldiak egin ziren Donostiako Zientziaren Kutxagunean. *Hobekuntza bidean* izenburupean, hainbat hitzaldi eta esperientzia entzuteko aukera izan zen.

Gonbidatuen artean, besteak beste, Pere Pujolás jauna izan zen. Bartzelonako (Herrialde Katalanak) Vic-eko Unibertsitateko Hezkuntza Fakultatean, Hezkuntza Inklusiboko masterra eta doktoretza programa koordinatzen ditu. Era berean, guztiontzako eskolako aniztasunaren trataera ikertzeko lanean ari den sarea koordinatzen du, eta sei unibertsitatek osatzen dute sare hori.

Gaur egun, eskolak ematen ditu Hezkuntzako Fakultatean. Dena den, unibertsitatean ez ezik, Bigarren Hezkuntzan eta aholkularitza psikopedagogikoan ere aritu da lanean.

Ikaskuntzaren egituraketa kooperatiboan, hezkuntza inklusiboan eta irakaskuntzaren autorregulazioan eta pertsonalizazioan burutu ditu bere ikerketa nagusiak, eta horien gainean mintzatu da.



Zer esan nahi du hezkuntzaren berriztapen kontzeptuak? Nora garamatza?

Horixe da erantzun beharreko galdera. Nire ustez, gaur egun indarrean dagoen legediaren arabera, argi dago gero eta inklusiboagoa izango den hezkuntzaren ikuspegi baterako bidea egin beharko genukeela. Inklusibitate printzipioak hezkuntza sistema osoa busti behar luke. Eta hau ez da gobernu baten edo besteren apeta hutsa; nazioarteko erakundeen ikuspegia da. Horien guztien ustez, herrialde guztietako hezkuntza sistemek ikuspegi inklusibo hori hartzen joan behar luke. Esaterako, UNESCOk nazioarteko hezkuntza konferentzia antolatu ohi du, eta bide hori azpimarratzen du etengabe. Hezkuntza sistemak, eraginkorra izan dadin eta guztiei aukera berdina eskaini diezaien, ikuspuntu inklusiboa izan behar du. Beraz, norantz jo behar dugu egin asmo ditugun berriztapen edo hobekuntza horietan guztietan? Bada, ikastetxe eta gela inklusiboagoetara.

Zer eskaintzen du ikastetxe inklusibo batek?

Kalitatezko hezkuntza eraginkorra eskaintzen die ikasle guztiei, baina denak gela bakar batean bilduta. Elkarrekin ikasi ahal izateko modua eskaini behar die askotariko ikasleei: nahiz eta oso ezberdinak izan, nahiz eta ezintasun handiak izan, nahiz eta hainbat jatorri sozialetakoak izan, nahiz eta hizkuntza arrotza izan, nahiz eta laguntza handia behar izan... Oso ezberdinak izan arren, elkarrekin ikasteko aukera izan behar dute. Ez soilik ikastetxe berean ikastekoa, baita gela berean

ikastekoa ere. Helburu horretara ailegatzeko egin behar dugu bidea, horretarako estrategiak, baliabideak, bitartekoak... bilatuz.

Zein baldintza nagusi bete behar ditu ikastetxe inklusibo batek?

Hiru baldintza nagusi bete behar ditu ikastetxe edo gela inklusibo batek. Lehenik eta behin, PRESENTZIA: gela bat inklusiboa izan dadin, beharrezkoa da ikasle guztiak gela horretan egotea; edo, behintzat, ahalik eta ikasle gehienak. Eta ez naiz ari kopuruaz, 20-30-40 ikasle izateaz, ez, ahalik eta ikasle gehien biltzeaz baizik, bakoitzaren ezaugarri pertsonalak edonolakoak izanik ere. Ziurrenik, une jakin batean, ikasleren batek edo besteak gela barruan egoteko zailtasun bereziak izango ditu, baina gela da ikasle horien guztien garapenerako gunerik egokiena. Eta beraz, ez gara konforme egongo ikasle horiak guztiak gela barruan egon daitezkeen arte. Beraz, ikasle guztien presentzia ziurtatu behar dugu. Guztiak ez baldin badaude, edo guztiak egon daitezkeen ahaleginik egiten ez badugu, gela edo ikastetxea ez da inklusiboa izango.

Presentzia, baina, ez da baldintza nahikoa. Gela barruan egote hutsak ez du ziurtatzen gela hori inklusiboa izango denik. Beraz, PARTE HARTZEA ere ezinbesteko baldintza izango da. Ikasle guztiak, ezberdinak izan arren, ikaskideek egiten dituzten ekintza berberak egin behar dituzte, guztiak batera. Ikasle gehienak gauza bat egiten edukitzea, eta han, izkina batean akaso eta laguntzarako irakasle batekin, bi edo hiru ikasle beste ariketa batzuk egiten edukitzea ez da parte hartzea. Ahal den neurrian gelako egunerokoa hartu behar dute parte ikasle guztiak. Ziurrenik, zenbait ikaslek esku hartze zehatza beharko dute une jakin batean, eta horiek noski burutu behar dira. Baina aukera izan behar dute gainerako ikaskideekin parte hartzeko, ahal duten neurrian.

Hori ere ez da nahikoa, ordea. Egon daitezke gelan presente, parte har de-



zakete, baina hirugarren baldintza bat ere bete behar da: GARAPENA. Hau da, egon daitezke gelan, har dezakete parte eguneroko ekintzetan, baina aurre-rapenik ez izan, hots, ezer ez ikasi. Eta gela inklusiboa izateko, ikasle guztiak euren gaitasunen arabera ikas dezaketen guztia ikasi beharko lukete.

Hiru baldintza horiek betetzen diren neurrian, gero eta ikasgela inklusiboagoa izango dugu. Kontua ez da dena edo ezer ez; gakoa neurrian dago. Hiru baldintza horiek bete daitezkeen urratsak eman ditzakegu pixkanaka.

Ikaskuntza kooperatiboak nola eragiten du horretan?

Ikasgela inklusibo batean, ezin diogu eutsi aurreko egitura berberari. Hau da, ezin dugu jardun gelan inklusiboa ez zenean bezala, edo aniztasuna horren handia ez zenean bezala. Beraz, beharrezkoa da gela barruko ekintzen egitura aldatzea. Eta ikaskuntza kooperatiboak horretarako malgutasuna eskaintzen du. Egitura konplexua da, baina malgua. Hainbat forma hartzen ditu, eta, horrela, aukera eskaintzen du ezaugarri ezberdinak dituzten ikasleek batera ikas dezaten.

Beraz, egitura egokia izatea ezinbesteko baldintza da?

Demagun eraikin bat egiten ari garela, eta beraz, eraikina baldintzatzen duten hainbat elementu ditugula. Bada, *ikastetxe inklusibo* batean ere bada elementu baldintzatzaileak, eta ez eskolaren eraikuntzari dagozkionak, ikastetxe inklusibo kontzeptuari lotuta daudenak baizik.

Hiru dira, nire ustez, eraikuntza baten ardatz nagusiak: lehenik, eraikinaren zimenduak. Ez dira ikusten, lur azpian daude, baina eraikina era bat baldintzatzen dute. Izan ere, zimenduek ezaugarri jakin batzuk izango ez balituzte, ezinezkoa izango litzateke eraikina jasotzea. Azken emaitzari zuzenean eragingo diote zimenduek, zailtzarik gabe.

Oinarrizko bigarren elementua eraikitzeko erabiltzen diren materialen jatorria izango litzateke. Erabiltzen diren materialen ezaugarriek ondorioak izan ditzakete gerora eraikinean. Beraz, materialaren jatorriak ere baldintzatuko du eraikina; kalitate txarrekoak badira, emaitza ere eskasa izango baita.

Eta hirugarrenik, eraikuntzaren ele-



E

“**Ikasleen taldekatze heterogeneoa egitea, ikasle bakoitzaren beharretara egokitu ahal izango dugun curriculum irekia izatea eta gelako jardunaren egitura malgua edo kooperatiboa ezartzea izango litzateke onena. Hau da, irakaskuntza pertsonalizatua, ikasleen autonomia eta egitura kooperatiboa**

”

men-tuen banaketa edo antolaketa izango litzateke. Eskailera leku jakin batean egoteak baldintzatu egiten du eraikina bera. Ni hirugarren solairuan banago eta bigarrenera beste bide batetik jaitsi nahi badut, ezinezkoa izango da; baldintzatuta nago, eta eskailera erabili beharko ditut. Edo ezin izango dut solairu erdian dagoen zutabe itsusia bota, ziurrenik, hori eginez gero, eraikina behera eroriko baita.

Hiru elementu horiek ezaugarri bertsuak dituzte: zaila da horiek aldatzea edo moldatzea; eraikinaren barruan daude ezkutatuta, ez daude agerian; ez dira ikusgarriak, ez dira politikak eta ez diete modei jarraitzen.

Dena den, guztiz baldintzatzaileak diren elementu horiez gain, badira horren erabakigarriak ez diren bigarren mailako elementuak ere. Batetik, eraikinaren kanpoko paretak, balkoiak, leihoak, apainketa, margotze lanak... egongo lirateke. Eta bestetik, eraikinaren barruko antolaketa: egiten dugun egituraketaren arabera bulego bat, pisu bat, biltegi bat, saltoki bat... izan daitekeelako.

Elementu horiek ez dira horren baldintzatzaileak, eta ezaugarri hauek dituzte: errazago alda edo molda daitezke; ikusgarriagoak dira, eta ederragoak; eta gainera, modarekin lotuago daude.

Hori guztia nola islatzen da ikastetxeetan?

Bada, egin dezagun orain eraikinaren eta eskola inklusibo baten arteko alderaketa. Elementu baldintzatzaileen artean eraikinaren zimenduak genituen, eta horrek lotura zuzena izan dezake eskola inklusiboan ikasleen tal-

dekatzearekin. Eskola jakin batean taldeak egiteko jarraitzen den irizpidearen arabera, ikastetxearen inklusio maila handiagoa edo txikiagoa izango da. Gauza bat da ikasleak modu homogeneoan taldekatzea, beraien errendimendu gaitasunaren arabera, eta beste gauza bat da ikasle taldeak ahalik eta modu heterogeneoan osatzea. Lehenengo kasuan, gela gutxi batzuk kanpoan uzten baditugu, ezinezkoa da gelak inklusiboak izatea. Beraz, oinarritzko elementua da, eta guztiz erabakigarria, zuzenean eragingo duelako inklusio mailan.

Bigarren elementua, materialen jatorriari dagokiona, bat etorriko litzateke curriculumaren izaerarekin. Curriculum ulertzeko dugun moduaren arabera, inklusiboagoa izango da ikastetxea. Esaterako, uste dut gaur egun LOE Espainiako Hezkuntzako Lege Organikoak zehazten duen *curriculum* oso itxia dela. LOGSEkoa baino are itxiagoa. LOGSE Espainiako Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legearen arabera, etapa batean zehar ikasleek hainbat helburu lortu behar zituzten. LOEk, berriz, zehazten du Haur Hezkuntzaren amaieran eta Lehen Hezkuntzaren lehenengo zikloaren amaieran lortu behar direla. Beraz, eman beharreko urratsak zehazten dira. Iristen dena hurrengora pasatuko da, iristen ez dena, aldiz, ez. Oso itxia da, eta, curriculum horren itxia izanik, ikasle askok ezin dute haren baitan egon. Ez dakit ulertzen den; aterki bat bezalakoa da, zenbat eta handiagoa izan, orduan eta jende gehiago sartzen da. Bada, curriculum horri jarraitu ezin dioten ikasle batzuk dauden unetik, ez da baliagarria guztientzat. Beraz, curriculumaren izaera erabakigarria izango da ikastetxe bat edo hezkuntza sistema bat inklusiboa izateko edo ez izateko.

Eta azkenik, eraikuntzako elementuen antolaketa egongo litzateke, eta zuzenean gelako jardunaren egiturarekin lot dezakegu hori. Hiru egitura identifikatu dira: banakakoa, lehiakorra eta kooperatiboa. Lehendabizikoek egitura finkoa dute, irakasleen eta ikas-

learen arteko ezinbesteko elkarreraginan oinarritzen dira –irakasleak irakastenez badu, ikasleak ez du ikasten–, ikaslearen bakarkako lana eskatzen dute, eta irakasleak erantzun egin behar die ikasleen beharrei. Egitura hori behin eta berriz errepikatzen da; irakasleak azaldu, adibideak jarri, ariketak egin, beste azalpen bat eman... Gainera, ikasleen artean lehia sortzen bada, orduan, bigarren ereduaren egongoginateke, baina elkarren antz handia dute biek.

Banakako egitura lehiakor horrekin, bada, oso zaila da ikasle guztiei erantzutea. Irakasleak askotariko ikasleak izango dituelako gelan, eta berak nahi izan arren –irakasle inklusiboa delako, zalantzarik gabe– ezin izango die guztiei arreta bera eskaini. Guztiak nahi ditu gelan, ados, baina ezin die denei erantzun, egitura finko hori eusten badio.

Hala ere, bada, konplexuagoa izan arren, askoz ere malguagoa den beste egitura bat. Hain zuzen ere, egitura kooperatiboa. Beraz, aipatutako hiru elementu erabakigarri horiek nolakoak diren begiratu beharra dago. Azken batean, horien arabera izango baitute ikastetxeek maila inklusiboagoa. Baina, lehen aipatu bezala, ez dira erraz aldatzen, oso zaila da gelako jardunaren egitura aldatzea, modu jakin batean egitera ohituta gaudenean. Oso zaila da curriculumak ikasle guztiei zabaltzea. Ez dute lortu oraino, hain da zaila. Eta oso zaila da, era berean, ikastetxe bakoitzak duen taldekatze irizpidea aldatzea.

Eta zeintzuk izango lirateke bigarren mailako elementuak?

Jendea asaldatu egiten da, baina, horren erabakigarriak ez diren elementuen artean, giza baliabideak, baliabide teknologikoak, metodologikoak, didaktikoak... daude. Ez dutesan nahigarranzitsuak ez direnik. Esan nahi dudana da, azken hauek aldatu arren, aurrez aipatutakoak aldatzen ez badira, ez dugula arazoa konpontzerik izango. Hau da, giza baliabideak beharrezkoak



dira, noski. Zenbat eta gehiago izan, hainbat hobeto! Baina ez dute inklusioa ziurtatzen. Zer gertatzen da? Moldatzen errazak direla, askoz ere ikusgarriagoak direla... Ulertzen da, ezta?

Horrek guztiak hipotesi bat planteatzen narama: ikastetxeetako berriztapen askok horren erabakigarriak ez diren bigarren mailako elementuetan jartzen dute arreta. Edo, asko jota, erabakigarrienak diren hiru elementuetatik bitan: ikasleen taldekatzean (gauza asko probatu dira alor horretan) eta curriculumean (ikastetxeetan mirariak egiten dituzte curriculumarekin). Uste dut egin direla ahaleginak bi elementu erabakigarri horiek moldatuz ikastetxe bateko inklusio maila areagotzeko. Baina, hala ere, iruditzen zait asko kostatzen dela gelako jardunaren egitura aldatzea.

Orduan, non jarri beharko genuke indarra?

Ikasleen taldekatze heterogeneoa egitea, ikasle bakoitzaren beharretara egokitu ahal izango dugun curriculum irekia izatea eta gelako jardunaren egitura malgua edo kooperatiboa ezartzea

izango litzateke onena. Balizko egoera hori posible egin ahal izateko, hiru lan ildo nagusi proposatuko nituzke.

Lehenik eta behin, ikasleei irakas-kuntza pertsonalizatua eskaini behar zaie. Aurrean ditugun ikasleak askotarikoak baldin badira, ezin ditugu tratatu berdina balira bezala. Baina, ohartu ere egin gabe eta denekin egon ezin duzunez, erdian geratzen direnei kasu egiteko joera izaten dugu irakasleok. Hori egiten badugu, kontuan izan behar dugu mutur bakoitzeko % 25 albo batera uzten ari garela. Beraz, ez dugu beste irtenbiderik: irakasten duguna ikasle bakoitzaren ezaugarri berezi-tara doitu beharrean gaude, ezberdina direlako. Programazio anizkuna deituko genioke horri. Azken batean, egokiagoa da curriculumak ikasle guztientzako eskuragarria izan dadin egitea, gehiengo estandar bati zuzenduta egin eta, ondoren, guztientzako baliagarria izateko, hamaika moldaketa egitea baino.

Irakasle guztiek edukiak aurkezteko baliabide didaktiko anizkunak izango balituzte, edukiak eskaintzeko hainbat modu izango balituzte–aukera

“**Egitura kooperatiboak irakaskuntza pertsonalizatua eta ikasleen autonomia bere barne hartzen ditu, eta, oinarrian, gelako jarduera ikasleek elkarri irakatsi ahal izateko moduan antolatzea izango litzateke. Banakako egitura batean irakasleak argitu beharko lituzkeen zalantzak kasu honetan ikasleen artean ebatziko lituzkete**”



bat hauentzat, beste bat beste haientzat, hirugarren bat gelako ikasle gorra-
rentzat ere egokia izango dena...-errazagoa litzateke. Ondoren, ebaluatzeko askotariko moduak beharko ditugu, noski! Berrikuntza teknologikoak onak dira, baina horrelako materialez laguntzen ez baditugu, ez dira horren eraginkorrak izango.

Bigarren lan ildoak ikasleen autonomiarena litzateke. Irakasleek behin edo behin esan izan digute: "Aurten gustura nabil talde ona egokitu zaidalako!". Horrek esan nahi du, 25eko gure taldean 6 ikasle inguru daudela, zer eta nola egin behar duten jakiteaz gain, egiteko gogoa ere badutenak. A zer pagotxa! Horrek egiten du ona taldea, eta liluratu egiten gaitu. Bada, ikasle horiek horrelakoak dira, ikasi egin dutelako, ez horrela jaio zirelako. Haien familia, gizarte eta eskola inguruneak ikaskuntzaren autorregulaziorako estrategiak ikasteko baldintzak eskaini dizkielako. Horrek autonomoago egiten ditu eta, era berean, irakaslearenganako duten mendekotasuna gutxitzen du. Eta hori ikasi badute, ikasten den guztia irakatsi daiteke. Beraz, hezkuntzako etapa guztietan modu sistemati-koan irakatsiko bagenu... irakasleek denbora gehiago eskaini ahal izango genieke hain autonomoak ez diren gainerako ikasleei.

Eta azkenik, hirugarrena egitura kooperatiboarena da. Aurreko biak

barne hartzen ditu, eta, oinarrian, gelako jarduera ikasleek elkarri irakatsi ahal izateko moduan antolatzea izango litzateke. Banakako egitura batean irakasleak argitu beharko lituzkeen zalantzak kasu honetan ikasleen artean ebatziko lituzkete. Horrela irakasleak aukera izango du bere esku hartzea apur bat doitu eta behar handiagoa duten ikasleei laguntza eskaintzeko. Beraz, hirugarren lan ildo hau jorratuz gero, aurreko biak ere sakontzen dira. Nire ikuspuntutik, hiru ardatz horiek egitura pedagogiko konplexua osatzen dute. Konplexua bai, baina ez ezinezkoa; eta askotariko ikasleei batera erantzuteko aukera eskaintzen du.

Baina zertaz ari gara jardueraren egituraz ari garenean?

Definizioz, jarduera batean biltzen diren elementuen eta eragiketen multzoa da. Horiek guztiak konbinatzeko erabiltzen dugun moduaren arabera eta bilatzen dugun helburuaren arabera, eragin jakin bat izango du parte hartzen ari direnen artean: indibidualismoa, lehiakortasuna edo kooperazioa.

Egitura indibidualista batean, ikasleak bakarka egiten du lan, eta bere helburua lortzen du, gainerako ikasleek lortu ala ez. Egitura horretan lan egiten duen ikasleak, saiatzen denak, interesa duenak, nahi eta ahal duenak ikastea lor dezake. Hainbat mailatan izango da, baina ikasi egingo du. Ikaskide ba-

tek ikasten ez badu, ez dio eragiten. Ikasleen helburuak, beraz, ez daude elkarren mende, independenteak dira. Aldiz, egitura lehiakorrean, ikasleek bakarka lan egiteaz gain, elkarren lehia jarduten dute. Helburua lehena izatea baldin bada, gainerakoek lortzen ez badute soilik erdietsiko dute. Beraz, albokoari lagundu, ezta pentsatu ere!

Hirugarrenean, ordea, guztiz aurkakoa gertatzen da. Egitura kooperatiboan, ikasleek elkarri laguntzen diote, eta ardura bikoitza dute: beraiek ikasteaz gain, ikaskideek ere ikas dezaten lagundu behar dute. Horregatik, taldean egiten dute lan; xedea gainerakoek ere lortzen badute soilik lortuko dutelako. Egitura lehiakorrean, helburuen mendeotasuna negatiboa zen. Kasu honetan, berriz, positiboa izango da.

Nola egitura daiteke ikasgelan jarduera kooperatibo hori?

Jarduera kooperatiboak ikasle guztien parte hartzea ziurtatu behar du, lehenik. Eta ere berean, baita aldibereko elkarrekintza ere. Horretarako, lehen urratsa taldeak modu egokian osatzea izango da. Demagun 24 ikasleko taldea dugula, eta lauko sei talde egin behar ditugula. Beraz, sei ikasle onenak identifikatu beharko ditut. Baina ez azkarrenak direlako, azkarrak izateaz gain, laguntzeko prestutasun handia dutelako baizik. Imajina dezagun 6 biribil ditugula, eta laguntza eskaintzeko gaitasun handienak dituztenak direla biribil horiek. Ondoren, 6 hiruki ditugu, eta horiek laguntza handiena behar duten ikasleak dira. Azkenik 12 karratu izango genituzke, gelako gainerako ikasleak.

Taldeak egiteko, beraz, biribil bat, hiruki bat eta bi karratu elkartuko ditugu. Gela horretan 12 neska eta 12 mutil baldin badaude, talde bakoitzean bi eta bi ipiniko ditugu. Eta hainbat jatorritako ikasleak baldin baditugu, horiek nahasten ere saiatuko gara. Beraz, ezin izango diegu utzi taldeak nahi bezala osatzen, guk –irakasleok– egin behar ditugu taldeak. Eta lanerako taldeak di-



rela esango diegu.

Emaitza sei talde heterogeneo izango lirateke. Baina, dena den, posible da noiz edo noiz talde homogeneoak ere osatzea; biribilak elkarrekin, hirukiak elkarrekin, karratuak elkarrekin... Biak dira beharrezkoak.

Proposatu dugun banaketa hori egiten duen irakasleak ez du sinesten soilik irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarrekintzan, ikasleen artekoan ere badu konfiantza. Eta bakarkako lanean konfiantza izateaz gain, taldeko lanean ere sinisten du.

Nahikoa al da hori eginda?

Ez, baldintza gehiago bete behar dira. Irakasleak, azalpena eman ostean, “orain ariketa hau, hau eta hau egingo ditugu taldeka guztion artean, elkarri lagunduz” esaten badu soilik, biribilak egingo du ariketa, eta gainerakoek kopiatu besterik ez dute egingo. Eta horrek izugarri amorratzen gaitu, ezta? Horrela lan eginez, ez dute neurri berean lan egiten guztiek, eta gainera, ez dago elkarreraginik. Hau da, ez dute gaia guztien artean aztertu, eztabaiatu, adostu... Beraz, hori ez da taldean lan egitea.

Gertatu daiteke, era berean, egu-

nen batean ariketak oso errazak izatea. Eta hirukiak ere gai izatea berehala egiteko. Horrelakoetan zein beste estrategia erabiltzen dute? Lan banaketa, hots, bakoitzak ariketa bat egin, ondoren elkarri pasatu eta kito! Kasu horretan, guztiek hartu dute parte, hori ezin da zalantzan jarri. Baina egon al da aldi bereko elkarrekintzarik? Ez. Beraz, ez dugu nahi duguna lortu.

Horregatik, irakasleak horrelako zerbait esan beharko die: “Taldean egingo dugu lan, baina gaurkoan, 1-2-4 egitura kooperatiboa erabiliko dugu”. Edo *Arkatzak erdira* izeneko egitura, edo *Hitzen jolasa*, edo beste edozein egitura kooperatibo.

Azalduko al zenuke, esaterako, 1-2-4 egitura hori?

Ikasleek A, B, C eta D ariketak egin behar dituzte. Lehengo urratsean (1), bakoitzak bere mahaian A ariketa nola egiten den pentsatu eta egin behar du. Denbora apur bat pasatzen denean, albokoari erantzuna erakutsi, bien artean eztabaiatu eta elkarrekin ebatziko dute ariketa. Parekoek, bitartean, gauza bera egingo dute (2). Eta azkenik, bikoite batek besteari ariketa erakutsiko dio, elkarren artean eztabaiatu dute, eta



E

“
Ikaskuntza kooperatiboa ezartzeko, hiru baldintza nagusi nabarmenduko nituzke: lehenik, talde kohesioa bilatu behar da, esaterako, talde dinamikak eginez; giro atsegina sortzeko, taldea batzeko, lan giroa sortzeko... bigarrenik, talde lana erabili beharko da irakasteko baliabide gisa; eta, hirugarrenik, talde lanean nola aritu irakatsi beharrekoa izatea
”

erantzun bateratua bilatu beharko dute A ariketarako (4). Horren ondoren, gauza bera erango dute hurrengo ariketekin.

Horrela eginez geroz, ikasle guztien parte hartzea eta aldebereko elkarrekintza lortuko ditugu. Egitura hori izango da egokiena gauza berriak ikasteko. Zergatik? Talde bakoitzean bada goelako norbait gainerakoek uler dezaten lagun dezakeena. Ez da beti biribila izango, gaiaren, ariketaren, egotaren... arabera izango da.

Beti eutsi behar zaio egitura berberari?

Ez, egitura hau ez da betierekoa. Ezin dugu beti berdina erabili. Lehen aipatu ditudan talde homogeenok ere erabili behar dira; biak nahastu behar dira.

Talde heterogeenok erabilia, bakoitzak bere mailan, baina guztiek ikasiko dute zerbait. Beraz, beste egoera batean ere jar ditzakegu, era autonomoan gaitasun maila berdintasunaren duten ikasleekin ere lan egin dezaten.

Gainera, horrela, irakasleak ere badauka aukera erantzun zehatzak emateko. Batzuei ulertu ez dutelako beste azalpen bat emanez, eta beste batzuei ariketa gehigarriak ipiniz. Talde homogeenok dira onenak, ikasi den horretan sakontzeko edo praktikatzeko.

Eta ikaskuntza kooperatiboa ezartzeko, zeintzuk dira beharrezko baldintzak?

Hiru baldintza nagusi nabarmenduko nituzke. Izan ere, jardueraren egitura hau ezartze soilak ez du talde guztietan funtzionatzen. Beraz, baldintza horiek lortze aldera egin behar da lan.

Lehenik, talde kohesioa bilatu behar da, esaterako, talde dinamikak eginez; giro atsegina sortzeko, taldea batzeko, lan giroa sortzeko, talde lanean aritzea eraginkorragoa dela erakusteko... Eta ez soilik egitura kooperatiborako; gelan edozein egitura erabilia ere, beti izango da garrantzitsua talde kohesioa lantzea.

Baina taldearen kohesioa izugarria izanagatik ere, elkarlana ez da ezerezetik sortzen. Beraz, talde lana erabili beharko da irakasteko baliabide gisa. Esaterako, jarduerak bakoitzak bere mahaian egin beharrean, elkartu egingo gara eta beste teknika bat (1-2-4, *Arkatzak erdira...*) erabiliz burutuko ditugu. Azken batean, talde aktiboak beharko ditugu, zenbaitetan homogeenok eta beste zenbaitetan heterogeenok izango direnak.

Eta hala ere, arazoak sortzen direla, talde lanean aritzea kostatzen zaiela, batek egiten duela lana eta gainerakoek kopiatu baino ez dutela egiten, batera hitz egiten dutela guztiek, aztoratuta daudela..., azken batean, ez dakitela taldean aritzen? Bada, ez da ezer gertatzen, erakutsi egingo diegu. Horixe izango da landu beharreko hirugarren baldintza: talde lana irakatsi beharreko eduki gisa hartzea. Ez badakite, erakutsi egingo diegu. Eta zer beharko dugu horretarako? Talde antolaketa egonkor samar bat, taldean ikastera ohitu daitezten, eta baliabide didaktikoak, eduki edo gaitasun hori irakatsi ahal izateko.



Juul 2010 Haur eta Gazte Literatura euskaraz



Hamabigarren urtez jarraian, eta Nazioarteko Haur eta Gazte Literatura egunaz baliatuz, Ikastolen Elkarreak bere literatur hauteskundeak antolatatu ditu gaur, apirilak 22.

Oсотara 20.994 boto izan dira jaso direnak:

-Euskal Herriko Ikastoletako LIBURUEN boto kopurua 15.258 izan da.

-Euskal Herriko Ikastoletako ILUSTRATZAILE kategorian, 5.736 ikasleek botoa eman du eta parte hartu du ekin-tza horretan.

Aurreko urtetan bezala, bi izan dira bozketa egiteko erabilitako sistemak, hots, betiko boto-txartela eta bozketa elektronikoa, azkeneko hau gure web orria erabiliz: <http://www.juulkanpaina.net>

Bereziki, haur nagusiak izan dira sistema hori erabili dutenak. Batzuk bi boto eman dituzte, bat liburuarentzako eta bestea ilustratzailearentzako.

Partaidetza

Hagitz altua izan dela baieztatu daiteke hainbat ikasle kategoriatan:

Akategoria (Haur Hezkuntza): 2.589
Bkategoria (LH1. zikloa): 2.851
Ckategoria (LH2. zikloa): 3.165
Dkategoria (3. zikloa): 3.265
Ekategoria (DBH): 3.304
Fkategoria (Batxilergoa): 84
Ikategoria (Ilustratzaile): 5.736

Prozesuari dagokionez

-Aste osoan zehar izan dira botazioak gure ikastoletan.

- Aurtengo Batxilergoko ikasleak San Benito ikastolakoak izan dira. Zorionak irakasleak!

- Ikastolako irakasleek ideia berri aunitzez hornitu dute aurtengo kanpaina: blogak, pegatinak, kartelak, puzzleak, musika, olerkiak etabar.

- Bozka elektronikoa aukeratu dutenak bozkagai ziren liburuak aurkitu dituzte bertan, Ministeritzako ISBN zerbitzuak horren informazioa igorri zigararik.

Gorabekerak

Partaidetza handiaren ondorioz, bozketa ugaria izan arren, sistema informatikoak ongi funtzionatu du eta ez da arazo teknikorik izan.

Bozkatuenei aitortpena

Aurten, joan zen urtetan bezala, bozkatuen izan diren idazle zein ilustratzaileei Ikastolen Elkarreak aitortpen berezi bat egin nahi izan die. Horretarako Pello Salaberri artista nafarrari JUUL jardueraren berrirakurketa egin zezala eskatu zitzaion. Hala egin du margolari honek eta pigmentu ezberdinez margotutako lan digitalizatua e 2010gin digu, NIEk saridunei banatuko diena.



JUUL 2010 Liburu hautatuenak

Adina	Egilea	Liburua	Botoak
3-6	Mario Ramos	Neu naiz ederra	141
	Emile Jadoul	Oilobustia	77
6-8	Ana Maria Machado	Mamu-hezlea	155
	Ane Schneider	Ekilorea	66
8-10	Toti Martinez de Lezea	Nur eta herensugearen tenplua	132
	Toti Martinez de Lezea	Nur eta irlandar gnomoa	50
10-12	Toti Martinez de Lezea	Nur eta herensugearen tenplua	341
	Jon Arretxe	Harresi handirantz	123
12-16	Jasone Osoro	Ezekiel	165
	Fernando Morillo	Seximenduz	117
16-18	Uxue Alberdi	Aulki jokoa	7
	Mariasun Landa	Festa aldameneko gelan	6
3-18	Juan Luis Landa	ILUSTRATZAILEAK	1016
	Mikel Valverde		260
	Jokin Mitxelena		245

Boliviako eskoletan Behar bereziko haurrekin lanean

Irune eta Maite behar bereziak dituzten haur eta helduekin aritu dira lanean Bolivian. Hiru hilabete egin dituzte han, eta Euskal Herrira itzultzear daude. Boliviatik bidali ziguten esperientzia dakargu hona.

Martxoaren amaieran etorri ginen Boliviara, Donostiako Denok Osasunaren Alde (DOA) gobernuz kanpoko erakundearen bitartez. Boliviako ipar-ekialdean dagoen Trinidad hiriko (Benni departamenduko hiriburua) hezkuntza bereziko eskolan ari gara lanean. Eskola horretan adin guztietako haur eta helduak daude, eta gure bete-beharra eskolaren antolakuntzarekin eta hezkuntzarekin zerikusia duten beharrak asetzeari da, gehien bat.

Eskola berria da, baina lehen mailako premiak asetzeko beharrezkoak diren hainbat gauza falta zaizkie; ura, esate baterako. Eta arazo nagusia diru falta da. Eskolan 120 pertsona daude izena emanda, baina egiaz eskolara joaten direnak askoz gutxiago dira: normalean, egunean gutxi gorabehera 60 lagun etortzen dira. Izena emanda dauden horien artean, guztiak ez dira behar bereziak dituzten haurrak. Hau da, haur horietako batzuk, Euskal Herrian egongo balira, ikastetxe normal batean ibiliko liriateke. Baina zer gertatzen da Bolivian? Ez dute laguntzarako irakaslerik. Horren ondorioz, haur bat atzean gertatzen bada, galdutzat ematen dute, eta



Irune eta Maitane euren haur taldearekin. ARG: Irune Diezek utzia.

eskola berezietara bidaltzen dute. Beraz, eskola horretan haurren nahiz helduen artean dagoen nahasketa oso nabaria da.

Irakasleei dagokienez, gure ustez, ez dute prestakuntza egokirik. Beraz, eskolak emateko garaian, baliabideak falta zaizkie, eta irakasteko hainbat metodo ere ez dituzte ezagutzen. Hainbat metodologia jartzen ditugu haien esku, eta eredu bakoitzak dituen alde positiboak erakusten saiatzen gara, gu Euskal Herrira itzultzen garenean, estrategia gehiago erabiltzeko aukera izan dezaten.

Gure laneguna goizeko zortzietan hasten da. Ordu horretarako joaten gara gu eskolara, eta haurrak pixkana-pixkana ailegutzen dira, 08:30era bitar-

tean. Ordu horretan hasten da eskola eguna, eta, bakoitza bere gelan sartuta, lanean hasten gara.

Maiteren eta Aideeren taldea zortzi ikaslek osatzen dute, 5 neska eta 3 mutilak. Batzuek garun-paralisia dute, Down-en sindromea duen ikasle bat ere bada, eta beste batzuk eskola arruntetik bidalitakoak dira. Gela horretan idazketa, irakurketa eta eragiketarako lan-tzen dituzte, etorkizunari begira. Gela horretako ikasleek arratsaldekoek baino errazago barneratzen dituzte ikasgaiak. Jolas ordua amaitu eta gero, eskulanak eta fisioterapia saioak egiten dituzte. Eta tarte horretan beste hainbat gauza ere lantzen dira. Hala nola, besteenganako errespetua, isiltasuna, memoria...

Iruneren taldean beste zortzi haur daude, aurrekoak baino gazteagoak gehienak. Beraz, horiekin beste mota bateko lanak egiten dira. Gauzak ikasten dituzte: zenbakiak, marrazkiak ongi margotzen, hizkiak... Gela horretan, gehienek Down-en sindromea dute, baina denetarik dago. Haur horiek ere, jolas ordua bukatu ondoren, eskulanak eta fisioterapia saioak egiten dituzte, helduekin batera, lehen aipatu ditugunak lantzeko.

Bestalde, hurrek astean behin soinketa, erlijioa eta musika izaten dituzte. Soinketan, igerilekura joaten dira, erlijioako orduetan, errezatu ondoren, Jainkoaren inguruko marrazkiak margotzen dituzte, eta beroriei buruz hitz egiten dute. Musikako orduetan, Beniko ereserkia abestu ondoren, dantza egiten dute, eta abesti berriak ikasten dituzte.

Ipuinak maiz erabiltzen ditugu eskola orduetan hainbat gauza lantzeko. Helduei ipuina irakurtzen zaie, ondoren laburpena egin dezaten. Idazten dakitenek idatziz egiten dute, eta marrazkien bitartez laburpen moduko bat egiten saiatzen dira besteak. Horrela, memoria, idazketa, irakurmena... lantzen dira. Txikien kasuan, ipuinek ikus izatera handiagoa dute, eta onomatopeia askorekin irakurtzen eta kontatzen dira, haurren arretari eusteko eta errazago ulertarazteko. Irudi handiak erakusten zaizkie, irudimena landu dezaten. Ipuina irakurri ondoren, marrazkien bitartez galderak egiten zaizkie: zein koloretakoa den zuhaitza, zenbat begi dituen otsoak, non kokatua dagoen ardia... Horrela, jolas moduan egiten da lan, zeharka.

Hurrek ez dute libururik erabiltzen, koaderno bat besterik ez dute denetarako. Beraz, landu behar duten materiala guk prestatu behar dugu. Aurreko egunean egiten dugu, eta ondoren, kopiak ateratzen ditugu: horiek

izaten dira beraien fitxak. Askotan hurrek ez dute koadernorik ere ekartzen, eta are gutxiago estutzea edo kartapazioa.

Helduen kasuan, bada ezberdintasun bat. Beraiek lana egiten dute. Neskak, esaterako, mahaizapiak egiten dituzte: eskuz margotu, eta, ondoren, saldu egiten dituzte. Beste batzuetan, pastelak egiten dituzte, eta horiek ere salgai jartzen dituzte. Lortzen duten diruarekin, gauzak egiten jarraitzeko materiala erosten dute. Gizonek, aldiz, eskulanak egiten dituzte. Horiek, baina, ez dituzte saltzen; lan egiteko beste modu bat da.

Hamabietan amaitzen dira eskolak, eta eskuak garbitu ondoren, hamasei haur horiek eskolan bazkaltzen dute. Izan ere, baliabide gutxi dituzten haurrak dira. Janaria eta 'moto-taxia' ordaintzen zaizkie gobernu kanpoko erakundearen bitartez. Bazkaldu ondoren, hortzak garbitzen dituzte, eta ondoren, 14:00ak aldera, etxera joaten dira.

Arratsalde, gainerako haur guztiak etortzen dira, eta guk horien gelak bisitatzen ditugu. Astez aste gelaz aldatzen joaten gara, gela horietako irakasleek dituzten beharrei erantzuna ematen saiatzeko. Arratsalde etortzen diren hiru gazteri Bliss komunikazio sistema-ko taula bat egin diegu, sinboloz osatutakoa. Bakoitzak berea dauka, eta taulak dituen marrazkien bitartez, beraien nahiak eta desioak azaltzeko aukera dute. Une horretan adierazi nahi dutena seinalatu, eta kitto.

Ostegunero biltzen gara eskolako irakasleekin, hainbat gairi buruz hitz egiteko eta izan ditzaketan zalantzak argitzeko. Horretan saiatzen gara, behintzat.

Oro har, gure lana haur bakoitzaren diagnostikoa eta egunerokoa egitea da, bai eta ume bakoitzarekin landu behar diren helburuak planteatzea ere, horrela, egin beharreko lana argiago ikusteko eta helburu zehatzagoekin lan egiteko.

Hemengo kulturari, gehien harritu gaituena daukaten lasaitasuna izan da. Gauza guztietarako "ahorita" hitza erabiltzen dute, nahiz eta "ahorita" hori ordu bete izan. Irakasleak izugarritzko patxadarekin ibiltzen dira, eta ondorioz, hurrek ere horrela jokatzeko dute.

Trinidadeko eskola horretan idazkariak irakasle lana ere egin izan du. Euria egiten duenean, ikasleen erdiak ez dira eskolara etortzen, eta irakasle batzuk ere ez, uholdeen ondorioz bideak ezin izaten direlako erabili. Bestalde, hemen, Bolivian, dena ospatzen da. Baina ospakizunak ez dira egun bakarrekoak izaten, aste osoa irauten dute. Nola ez, ospakizuna prestatzen denbora luzea pasatzen dute. Oraindik ere, neskak eta mutilak banatuta daude ikasgela batzuetan. Esaterako, helduen kasuan horrela izaten da.

Lau urte dira Denok Osasunaren Alde Boliviano proiektuan lanean hasi zenetik, eta oso ongi hartu gaituzte. Irakasleek zein ikasleek egin diguten harrera oso ona izan da. Gustura gaude, eta lanerako gogoz!



Nafarroako hainbat ikastetxetan euskararen erabilera sustatzen ari zarete. Nola



“Ikastetxean Euskararen Erabilera Sustatzeko Estrategiak edo Baliabideak” izenburupean ikastaro ugari antolatu dira, artikulu asko idatzi dira, eta hausnarketa talde anitz sortu dira. Guk hemen aipatuko dugun ekimena, ordea, duela hamar urte Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Euskara Zerbitzuak abian jarri zuen ikastaroa da, eta, une bonetan, zertan den azaltzen saiatuko gara; Hezkuntzako Euskararen Irakasleentzako Baliabide Zentroak eta Euskara Atalak kudeatutako ikastaroz mintzatuko gatzazkizue.

Ikastaro hori HHko, LHko eta DBHko ikastetxe publikoetarako zein hitzartuetarako prestatua dago, eta Nafarroako leku askotako ikastetxeek eskatu dute; besteak beste: Iruñeko, Iruñerriko, Lizarrako, Elizondoko, Garraldako eta Altsasuko ikastetxeek.

Zein dira irakasleen kezkak?

Euskararen erabilerrari buruzko keza, noski, iritsi da ikastetxeetara, beste hainbat arlo eta eremutara bezala. Kontua da, ikastetxeetan, erabilera



Esther MUGERTZA
EUSKARA ATALA

gabezia horiek nabarmenak eta azaltzeko zailak direla, ezagutzari buruzko datuak, ustez, txukun samarrak izan daitezkeelako.

Beraz, hauxe da irakasleek ateratzen duten bat-bateko ondorioa: gure ikasleek ez dute euskaraz egiten, edo ez dute egin nahi; hori, sarritan, ez da ulertzen, eta zergatia jakin nahi izaten dugu.

Urteak joan, urteak etorri, egoera makurtzen ari dela diote, gero eta gu-



Yolanda OLASAGARRE
EIBZ

txiago hitz egiten ei da gela barnean, baita irakasleari zuzentzen zaizkion uneetan ere. Eta euskaraz gero eta gutxiago hitz egiteaz gain, gero eta okerrago mintzo omen dira. Oso modu orokorrean esanda, eta salbuespenak salbuespen, hori da ikastaroa eskatzeko irakasleek duten arrazoi nagusia.

Azken finean, gurea bezalako hizkuntza gutxitu bati buruz ari garenean, euskararen eta beste hizkuntzen errealitatea ezagutzeko eta interpretatzeko

euskarriak azaldu egin behar dira.

Irakasleek benetako kezka, ezinegona eta ardura dute. Hizkuntza kontzientzia handia dute; baina, egoerak gaindituta, hura ulertzeko eta iraultzeko tresnak falta zaizkie.

Ikastetxe bakoitzaren egoerara egokitutako ikastaroa

Ikastetxe bakoitzak berezko ezaugarriak ditu; eta inguru soziolinguistikoak, euskaldunen proportzioak, euskararen erabilera sozialak, ikastetxeko hizkuntza ereduek, Lehen Hezkuntza-ko ikastetxea edo institutua izateak, gurasoen motibazioak..., guztiek baldintzatzen dute ikastetxea. Ezaugarri horiek denak kontuan izanda, ikastaroaren edukiak eta xedeak egokitu egin ditugu. Eta, hain zuzen ere, egoerara egokitutako ikastaroaz ari garenez, eta horren ondorioz, plan eta egitasmo berriak sortzen ari dira euskararen erabilera bultzatzeko.

Esperientziak erakutsi digunaren arabera, badira euskararen egoerari buelta emateko lanean aspalditik ari diren ikastetxeak; eta proiektu bat abian jarri ondoren, hamaika arrazoi direla medio (irakasleak aldatzea, ikastetxeak beste lehentasun batzuk ezartzea...), bertan behera gelditzen da. Eta lauzpabost urte pasatu ondoren, berriz ere hasierako egoerara itzultzen dira, eta hortik abiatu behar izaten dute. Lehendik egindako bidea aprobeztatu egin behar dela uste dugu, ezin dugu beti zerotik abiatu, izugarritzko nekea eta energia xahutzea dakar eta.

Gure abiapuntua. Egoeraren adierazleak.

A.- Ikastetxean euskarari ematen zaion trataera.

Ikastetxeetan euskarari buruz ari garenean, gehienbat gramatikaz eta zuzentasunaz ari gara. Komunikazioa eta hizkuntzaren trebetasun aktiboak nahiko alboratuta ditugu. Esaterako, ahozko jarduna oso era arbitrarioan lantzen da, lantzen den kasuetan. Ez dago horri buruzko sistematizaziorik, ezta ebaluaziorik ere. Curriculumeko xedeetan aipatzen bada ere, landutzat

ematen da, mintzatzea eta ongi mintzatzea berezkoak (naturalak) balira bezala. Ahozkotasanari buruz aritzeak urduritu egiten gaitu hainbatetan, eta beldurrak, maiz, isiltasun egoera batera garamatza, hezkuntza komunitateari inolako mesederik egin gabe.

B.- Eskolaren eragin mugatua.

Gutxienez lau faktorek eragiten dute gure ikasleen euskara mailan:

- a.- Hizkuntza ereduek.
- b.- Etxeko, auzo giroko, lagunarteko hizkuntzak.
- c.- Ikasleen adimen mailak.
- d.- Ikastetxearen hizkuntza planteamenduak.

Zer esan nahi du horrek? Hizkuntza ereduek eta ikastetxearen hizkuntzaren planteamendua eskolaren esku daudela; besteak ez, ordea. Ereduari dagokionez, nahiko finkoa da, eta kontua zer-nolako aplikazioa duen ikustea izan daiteke. Azken faktoreari dagokionez, aldiz, badirudi lantzeko aukera badagoela, eta honetan zeresan handia dugu irakasleok eta eskolak, baina ez bakarrik eskolak. Beraz, emaitzak aztertu behar badira, muga horiek kontuan hartu behar dira (Zalbide, 2003).

C.- Ikasleen hizkuntza ezaugarriak:

- Gure ikasleak, oro har, euskarazko gaitasun pasiboetan aktiboetan baino askoz ere trebeagoak dira.

- Euskarazko aldaera edo erregistro jaso, formal eta azalpenekoetan aurrera egin da; atzera, berriz, mintzamenaren esparru informal, barrenkoi eta intimoetan.

- Aurrera, euskara batuaren ezagutera formal eta aplikazio praktikoan.

- Euskararen hots-ebakeran, atzera egin da (Zalbide, 2003).

Eusko Jaurlaritzako Euskara Zerbitzuko zuzendari den Mikel Zalbidek aspaldi jabearazi gintuen egoera horretaz; gaur egun, oraindik antzera jarraitzen dugu.

Gure ikasleek hizkuntza erabiltzeko duten zailtasunen artean ahozkoan ez dutela nahiko gaitasun sumatzen dugu. Hala bada, curriculumaren ere-

Erdigunetik lan egiteko beharra ikusten dugu. Nireaz hausnarketa egin gabe besteak egin behar duenaz kezkatzen banaiz, gaizki ari naiz, zeharo. Nireaz hausnartu ondoren ondokoan paperaz hausnarketa egiteak, aldiz, balioa izanen du.



muak ahozkoan trebatu behar ditu gure ikasleak; ondoren, aukera baldin badute eta hala nahi badute, euskaraz hitz egin ahal izateko. Ahozkotasuna ikasgai guztietan landu behar da, ez euskarara arloan bakarrik. Edukiak hizkuntzaren bidez lantzen dira, eta hizkuntza edukien bitartez lantzen eta ikasten da hobekien.

Zer-nolako laguntza eskaintzen diegu irakasleei?

Lehenik eta behin, gure hipotesia adierazi nahi dugu. Gure hipotesia azken urteetan dugun egoera soziolinguistikoan oinarritua dago, egindako ikerketetan du oinarria, eta euskarazko irakaskuntzan ikusten ditugun hutsuneetan. Hori guztia kontuan hartuta, gaur egungo gizarteak, gaztetxoek, haurrek dituzten hizkuntzarekiko atxikimenduetan oinarritzen gara.

Aldi berean, planteamendu errealista izan dadin nahi dugu, irakasleek eskura dituzten baliabideen (denbora, prestakuntza, motibazioa...) arabera, eta epe ertain eta luzean aurrera eramateko modukoa, alegia. Lehentasunetan oinarritutako plana da bideratzen duguna.

Hori kontuan hartuta, besteak beste, honakoa transmititu nahi izaten dugu:

- 1.- Irakasleon egin beharra gela ere-

Hizkuntzaren erabilera bultzatu nahi badugu, ahozkotasuna modu sistematikoan eta planifikatuan landu beharko du eskolak. Jakin badakigu hizkuntza erabiliz ikasten dela, eta pentsatzekoa da erabiltzen dugun neurrian gure gaitasuna hobetzen dugula, eta horrek motibazioan ere eragin zuzena duela.



muan kokatzen da; batez ere, irakasle gisa hor dugu gure egiteko nagusia. Noski, gurasoek ere bere egin beharko dute, eta gainerako sozializazio eragileek ere bai. Lanek osagarriak izan beharko dute. Baina uste dugu askotan jorera dugula “hau egin behar duzue”, “bestea egin behar duzue” esateko, edo, adibidez, gelako jarduna alde batera utzi eta horrelako pasabideko kanpaina bati ekiteko, edo lagunartea lantzeko eskolaz kanpo, edo aisialdia euskaraz izan dadila eskatzeko.

Bakoitzak dagokion lan esparrutik/roletik aritu behar du, tinko eta kementsu, hori baita bere eragin eremua. Eman dezagun, nik, guraso naizen aldetik, hau, hura eta beste eskatzen diodala irakasleari, eta hari bereak ez diren eginbeharrak gaineratzen dizkiodala. Eta nik, guraso naizen aldetik, egin behar dudana hausnarketarik egiten ez badut, argi izan behar dut nik neronek egiten ez dudana ez duela beste inork egingen. **Erdigunetik** lan egiteko beharra deitu diogu horri, gure eragiteko ahalmenetik lan egitea. Hori ulertzea oso garrantzitsua da. Nireaz hausnarketa egin gabe besteak egin behar duenaz kezkatzen banaiz, gaizki ari naiz, zeharo. Nireaz hausnartu ondoren ondokoen paperaz hausnarketa egiteak, aldiz, balioa izanen du.

2.- Egoera honen aurrean, eta azal-

kerietan ez erortzeko asmoz, arazo honen zergatia ulertzeko tresnak, baliabideak, datuak eskaintzea da gure xedea. Izan ere, arazoari aurre egin behar baldin badiogu, jakin behar dugu arazoaren tamaina eta kausak zein diren. Eta kontuan hartuta gu irakasleak garela, hortik abiatuta egingen diogu aurre egoerari.

Zentralitatearen gaia garbi azaldu-takoan, bigarren faseari ekiten diogu: **desikasteari**, hau da, ditugun aurreiritzi eta uste erdi ustel asko saihesteko bideari. Maiz gertatzen baitzaigu denok asko jakitea euskararen egoera soziolinguistikoz, eta benetako oinarri zientifikoa eta datu objektiboetatik urrun ibiltzea.

Horrenbestez, egoera aztertu ondoren, guretzat bi ardatz nagusiak zein diren zehaztu dugu: batetik, euskararekiko motibazioa eta atxikimendua; eta, bestetik, ahozko gaitasuna hobetzea, baldin eta euskaraz hitz egin dezaten nahi badugu, behinik behin.

3.- **Aldaketa metodologikoa** ere eskatzen du gure planteamenduak, izan ere, ahozkoa lantzeko, irakasleak isilik egoten jakin behar du sarri; ez du beldurrik izan behar horretarako, eta ikasleek beren prozesuaz arduratu behar dute. Gela, nolabait esateko, eremu askeago (eta askatzaileago) bihurtu beharko da, askatasun horren barnean ordena jartzeko eta ildo nagusia parartzeko.

Egitasmo honek ez du ekarri behar curriculumean eduki gehiago sartzea, daudenak beste modu batera lantzea

baizik. Hori egiten ikasi eta trebatu behar du irakasleak. Adibidez, azterketak egin behar badira, ahozko azterketak egin daitezke.

4.- **Motibazioa**. Gure ikasleak zer motibatzen dituen jakiten saiatu behar dugu. Jakin badakigu oso gai konplexua dela, hari-mutur ugari dituena. Irakaslearen eta ikasleen jarrera ezinbestekoa da hizkuntzaren erabilera ahalbidetzeko. Hori aspaldidanik defendatu dute Krashek (1982) (afektibitate-iragazkiaren eragina inputean teoriarekin) eta Ausubelek (1976) (subjektibitate eta alderdi afektibo-sozialak eza-guera esanguratsuan).

Guk zera azpimarratu nahi izaten dugu: lehenik eta behin, motibazioa ez da bakarrik gelaz kanpoko jarduera solteak antolatzea (Olentzero, Inauteriak, Euskararen Astea...). Horiek guztiak beharrezkoak baldin badira ere, hasteko, gela barruko lanari begira, gure ikasleen motibazioak ezagutu behar ditugu (Ostolaza, 2006); jakin behar dugu, gainera, askotariko motibazioak egonen direla gure ikasleen artean. Hori jakinda, euskarara erakartzeko, bideak pentsatu behar ditugu euskara gустuko komunikazio hizkuntza izan dezaten.

Adibidez, ikasleak karrikara ateratzea euskarari buruz herritarrei zer pertzepzio duten galdetzera; udalerrian euskaraz gaizki idatzitako oharra, iragarkiak jasotzera; ikasleei eskatu nola lortuko luketen haien inguruan euskaraz gehiago hitz egitea; azter dezatela nola ikusten duten haiek euskararen



egoera. Hortik jasotako datuekin nola baiteko hausnarketa sor dezakegu, eta datu zehatz horien gainean hizkuntza kontzientzia landu.

Ikasleen motibazioa pizteko bide egokiak sustatu behar ditugu. Bideak ez dira zehatzak, baina, bidea egiten joateko, joko arau egokiak zein izan daitezkeen aipatzen dugu. **Lehenengoa:** ahal dela, ez ditugu gure ikasleak epaitu behar (izan ere, ez dakigu zer-nolako bizipena, kontaktua duten euskararekin; beraz, ez dugu uste bide egokia denik hori ezagutu gabe epaitzea) (Muji-ka, 2009). **Bigarrena:** ikaslea bere osotasunean hartu behar dugu kontuan. Esate baterako, lotsatia baldin bada, berezko ezaugarri hori gogoan izatea, errespetatzea, eta maitasunezko estimuluak ematea. **Hirugarrena:** giro goxo sortzen badugu, gelako araudia guk zere-rendatu beharrean lan taldetan zehazteko eskatzen badiegu, aurki giro hobea lortuko dugu eta sentipen positiboen bidez errazago erakarriko ditugu. Esaten dena ahaztu egiten da, baina sentitzen dena gelditu egiten da (Muji-ka, 2009). **Laugarrena:** ikasleei konfiantza eman, haien motibazioetatik abiatu eta hautatzeko aukera eman, bi edo hiru aukeraren artean, horrek motibazioan eragiten duelako eta partaide eta protagonista senti daitezten laguntzen duelako. Aukera aniztasunak berak motibatu egiten du, nor bere bidea hartzera bultzatzen du. Ikerketek diotenez, aukerak endorfinak (dopamina eta serotonina) askatzen ditu, estres maila gutxitzen du, eta ikasteko kontrola areagotzen (Gilbert, 2005). Adibidez, 5 galdera baldin baditugu, nahi dutenetik has daitezkeela esanen diegu, edo idazlana egin behar baldin badute, noiz egin nahi duten galdetuko diegu (eskola orduaren hasieran edo bukaeran). Aukeratzeko ahalmenak, kontrol sentipena emateaz gain, arduratsuago egiten gaitu. Ardurak, aldi berean, heltzen (helduago izaten) eta arrakasta izaten laguntzen digu. **Bosgarrena:** gure eskolak positibizatu behar ditugu, guk ongi egon behar dugu (arnasa sakon hartu, irribarre egin, pentsamendu osasun-

tsuak izan...), ikasleak erakarri nahibaditugu. Ikastea plazer bilakatzen den egunean lortu dugu ikasleak ikastera bultzatzea. Irakasleak esandakoa grabatu egiten zaigu, nonbait. Beraz, kontuz ibiliko gara gure mezu negatiboekin.

5.- Hizkuntzaren erabilera bultzatu nahi badugu, **ahozkotasuna modu sistematikoan eta planifikatuan** landu beharko du eskolak. Jakin badakigu hizkuntza erabiliz ikasten dela, eta pentsatzekoa da erabiltzen dugun neurrian gure gaitasuna hobetzen dugula, eta horrek motibazioan ere eragin zuzena duela.

Gurea bezalako egoera batean, ikastetxeak hizkera formala ez eze, hizkera ez-formala, lagunartekoa ere landu behar du. Hizkera ez-formala lantzeko guneak, eremuak, espazioak eta denborak bilatu behar dira, ikastetxean nahiz ikastetxetik kanpo. Adibidez, egonaldietan, irteeretan, jolasjardueretan, gorputz hezkuntzan, taldeko lanean, joko libreetan...

Jakin badakigu arlo akademikoak hizkuntza formala lantzen duela batez ere. Baina gela barruko jardun guztia ere ez da formala (EHIF eta Euskaltzaindia, 2008). Hala ere, esan bezala, gure egoeran aski justifikatuta dago hizkuntza ez-formala (lagunartekoa...) lantzea eskola eremuan eta gela barruan ere. Esate baterako, hizkuntza ez-formala lan dezakegu Euskara ikasgaietan, baldin eta formalaren lanketa sistematikoa beste ikasgai batzuetan ere egiten bada. *Helburua ez da denok dena egitea, denon artean dena egitea baizik.*

Ahazkotasuna modu antolatuan landu behar dugu, gure ikasleek euskaraz hitz egin dezaten nahi badugu. Askok gelan ikasi behar dute hitz egiten, ikastetxetik kanpo ez baitute aukerarik izanen euskaraz aritzeko beren ingurune osoan.

Ahozkoa lantzeak, batez ere, bi kontutxo eskatzen ditu:

- Ahozkoan trebatzeko, gure ikasleak maiz hitz egin behar dute.

- Hizkuntzaren hausnarketa egin behar dute, akatsak zuzentzen joateko

Hainbat lorpen ikusi ditugu: irakasleak hizkuntza egoeraren jakitun egitea, aurreiritziak alboratzea, oinarri soziolinguistikoa jasotzea, irakasle kontzientziadunen gainetik zama kentzea, egitasmoan sinestea, asko dagoela egiteko ikustea, jabetzea gai direla hainbat helburu lortzeko...



eta tarteko hizkuntzan ez gelditzeko (Ruiz Bikandi, 2003).

Irakaskuntzan hitzez adieraztea izeneko paradigma erabiliko da. Hau da, ideiak, sentimenduak eta gertaerak hitzez esatea, elez adieraztea eta hitzez iragartzea. Gelan egoera komunikatiboa sortu behar da heziketa mutua gainditzeko. Ahozkoa irakasgai guztietan landu behar da; ahozkoa zehar-gaia den neurrian, irakasle guztiei dagokie. Horrek ez du eskatzen eguneroko jardunetik aldentzea, hitzez adieraztea **irakasbide** bat baita, metodo bat. Ahozkoak ez du idatzia ordezkatzeko; baina, apika, inoiz galdu behar ez zuen lekua berreskuratuko du.

Gure ikasleak ahozkoan trebatzen baldin baditugu, gai baldin badira gaztelaniaz bezala komunikatzeko, eta euskararekiko atxikimendua izan dezaten lortzen baldin badugu, pentsatzekoa da ikasleek euskaraz aritzeko gaitasun eta gogo handiagoa izanen dutela. Horrenbestez, hasierako egoerari aurre eginen diogu (gure ikasleen hala-holako ahozko gaitasunari eta motibazio gabeziari edo ahuleziari).

6.- Ahazkotasuna eta euskararen erabilera ezin dira ulertu **oinarri soziolinguistikoa** bat izan gabe. Irakasleok oinarri hori behar-beharrezkoa dugu. Ez digute irakatsi euskararen egoera planifikatua dela, zergatik hizkuntza handiek

Zailtasunak ere, noski, ikusi ditugu: irakasleok ez dugula beta handirik horrelako egitasmo bati hasieran behar duen indarra eskaintzeko; lehentasun arazoak; irakasleoneko transmisio falta, ahozkoaren sekuentzia mailaz maila ez egitea, ahozkoa nola ebaluatu ez jakitea, irakasleentzako prestakuntza gauzatu beharra...



hizkuntza txikiak jaten dituzten, boterearen ezkutuko eragina zein den, hizkuntza bakoitzak hiztunengan zein ordainsari sistema duen... (Zalbide, 2003). Oinarri soziolinguistikoko bat jasotzekoak hainbat buruhauste eta frustrazio kenduko lizkiguke. Euskararen kinka larria ez baitago gure gain bakarrik. Ikastetxeak bere lan eremuak eta bere mugak dituela jakin behar dugu. Irakasle euskaldun eta euskaltzaleok hainbat informazio osagarri jaso behar dugu egoera ulertzeko, gure-gurea den eremuan lanean aritzeko eta ditugun mugez jabetzeko. Horrek, maiz, bakea ere emanen digulako. Ikasleei begira ere (adinarean arabera) soziolinguistika egin beharko da, baina, betiere hizkuntzarekiko atxikimendua lortu nahian, eta ez eduki gisa. Hau da, helburua ikasleek euskara erabiltzea sustatzea izan da, eta ez azterketei beste eduki bat eranstea.

7.- Ikastetxearen plana, proposamena gauzatzea eta bide horri ekitea. Horixe da ikastetxeak bete behar duen **egitasmoa**, baina betiere aurretik aipatu ditugun zutabeetatik abiatuta: ikasleentzako ahozkoa lantzea sistematikoki (gela barruko lana), ikasleentzako motibazioa eta atxikimendua lortzen saiatzea, gure ikasleentzako motibazioetatik abiatuta (zenbaitetan, baita irakasleena ere), eta gure eragin eremutik lan egitea (erdigu-

netik, hain zuzen). Horretarako, ezinbestekoa ikusten dugu irakasleentzako koordinazioa. Koordinazioa era desberdinetan gauzatuko da: bai euskara taldea sortuta, bai ikastetxearen ohiko koordinazio guneak erabilia (zirkloak, mintegiak, batzorde pedagogikoak...).

8.- **Ebaluazioa** da azkeneko urratsa. Egitasmoa ebaluatu egin behar da, gelan zein ikastetxean. Gelan egiten diren ekoizpenak neurtu beharko dira erregistro, eskema edo adierazle batzuen bitartez, ikasleentzako aurrerapena kontuan hartzeko. Ikastetxearen plana ebaluatu behar da, ikasturtearen amaieran gutxienez, hurrengo ikasturtean behar diren hobekuntzak eta aldaketak sartzeko.

Ikastaroak burutu ondoren, hainbat **lorpen** ikusi ditugu: irakasleentzako hizkuntza egoeraren jakitun egitea, aurreiritziak alboratzea, oinarri soziolinguistikoa jasotzea, irakasleentzako kontzientziadunen ginetik zama kentzea, egitasmoan sinestea, asko dagoela egiteko ikustea, eta jabetzea gai direla hainbat helburu lortzeko eta, zenbaitetan, egoera eraldatzeko. **Zailtasunak** ere, noski, egunero aurkitzen ditugu honelako egitasmo batekin aurrera egiten dugunean: irakasleok ez dugula beta handirik horrelako egitasmo bati hasieran behar duen indarra eskaintzeko; lehentasun arazoak; irakasleentzako transmisio falta bi norabidetan behintzat ikusi dugu: bata, irakasle belaunaldi berrien eta zaharren arteko transmisioan (edukietan, hizkuntza kontzientzian, bizipenetan); eta bestea, irakasle taldeentzako egitasmoaren transmisioa behar den bezala ez gauzatzean; horrek zama dakar, bai eta egindako bidea behin eta berriz egitea ere; ahozkoaren sekuentzia mailaz maila ez egitea, ahozkoa nola ebaluatu ez jakitea, irakasleentzako prestakuntza gauzatu beharra.

Azkenik, irakasleei eskerrak eman nahi dizkiegu horrelako egitasmo batean sartzeko kemena eta gogoia erakusten dutelako eta lan handia egiten dutelako. Irakatsi ondoren berriro ikasleentzako gogoia dutelako.

Erreferentzia bibliografikoak:

ALTUNA, J.; MUJICA, T.; HERNANDEZ, L.; MORENO, I.: *Erabilera eragin nahian, irakasleentzako motibatu eta giroa*. Eskola Hiztun Bila, XIII. Jardunaldia, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Bilbo, 2009, 3 DVD.

AUSUBEL, D.: *Psicología educativa. Un punto de vista cognoscitivo*, México: Editorial Trillas, 1976.

EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA eta EUSKALTZALAN: *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*, Jagon Saila, Bilbo, 2008.

FERNANDEZ OSTOLAZA, I.: *Nola saldu euskara gazteei*. Eskola Hiztun Bila, X. Jardunaldia, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Gasteiz, 2006, DVD.

GILBERT, I.: *Motivar para aprender en el aula. Las siete claves de la motivación escolar*, Paidós Educador, Barcelona, 2005.

KRASHEN, D.S.; SCARCELLA, R.; LONG, M.: *Child-Adult Differences in Second Language Acquisition*, U.S.A.: Newbury House, 1982.

ROEBUCK, C.: *Comunicación eficaz. Un manual práctico para pensar y trabajar con inteligencia*. Blume enpresa, Barcelona, 2000.

SAINZ, M.; OZAETA, A.; GARRO, E.: "Ahozko hizkuntza lantzen. Haur hezkuntzan hasi eta unibertsitatean" *in* Hik Hasi 140, 2009, 6-13.

RUIZ BIKANDI, U.; OZAETA, A.; ITURRIZA, M.: *Metodologia eta interakzio didaktikoa*. Eskola Hiztun Bila, XIII. Jardunaldia, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Bilbo, 2009, 2. DVD.

RUIZ BIKANDI, U.: "Ahozko euskararen lanketa bereziki bigarren hizkuntza denean" *Ikastolen Elkarte*, X. Jardunaldi Pedagogikoak, 2003.

ZALBIDE, M.: "Ahuldutako Hizkuntza Indarberitzea: teoriak zer dio?", Sarean eskuragarri: http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1056974834, 2003-07-07.

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.
Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

ekaina
berriak

STEE-EILAS sindikatuaren IX. Kongresua

Pluraltasunean bat eginik, Eskola eta Gizarte eredu berriaren alde lelopean, STEE-EILAS irakaskuntzako sindikatuaren IX. Kongresua egin zen joan den maiatzaren 15ean Donostiako Miramar Jauregian.

Orotara sindikatuko 144 ordezkari bildu ziren bertan datozen lau urteetarako lan ildo zehaztuko duen txostena eztabaidatzeko. Era berean, irakaskuntzako sindikatuaren Kontseilua, Idazkaritza Nazionala eta Batzorde Iraunkorra berri zizuten kongresuan.

Pil-pilean dauden hezkuntzako hainbat gairen inguruan eta une honetan hezkuntza sistemak dituen erronka berriei buruz eztabaidatu eta hainbat erabaki estrategiko hartu zituzten. Besteak beste, euskara eta eleaniztasuna, *curriculum* propioa, elkarbizitzarako eta bakerako hezkuntza, hezkuntza sistema propio eta integrala, unibertsitatea, hezkidetzak, laikotasuna, kultur artekotasuna, ikastetxeen kudeaketa



Hezkuntzaren alorreko hainbat gai jorratu zituzten Miramar Jauregira hurbildu zirenek.

eta parte hartze demokratikoa... izan zituzten hizpide.

Beste eragiletako kideak

Hainbat sindikatutako ordezkariak ere izan ziren kongresuan. Besteak beste: Euskal Herriko ESK, Catalunya-ko IAC Intersindikala, Illes Balearseko STEI-i, Galiziako STEG, Pais Valenciá-

ko STEPV-IV... Beste batzuk itxiera ekitaldian hartu zuten parte, hala nola, Txiki Muñoz ELAko idazkari nagusia eta Arantzi Sarasola LABeko funtzio publikoko arduraduna. Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusi ohiak ere hartu zuen hitza eta hainbat alderdi politikotako ordezkariak (Aralar, Ezber Batua, Ezker Abertzalea, Gogoia) ere hurbildu ziren ekitaldira.

LAB irakaskuntzaren V. Nazio Batzarra

Nondik nora, egindakotik egitekora lelopean, LAB irakaskuntzaren V. Nazio Batzarra egin zuen maiatzaren 22an Etxarri-Aranatzan.

Atzera begira

Atal horretan, ondoko puntuak aztertu ziren: 1. Legeak, 2. Testuingurua, 3. Hezkuntzan eragin duten elementuak, 4. Hezkuntza lerro nagusiak eta 5. Ekintza sindikala.

Gogoeta berezituak

Bi gogoeta berezitu zituzten: 1. Feminismotik hezkuntza eraldatzen eta 2. Migrazioak eta aniztasuna.

Aurrera begirako erronkak

Egunerokotasunean aurrera jotzeko erronken artean hauexek aztertu ziren: 1. Ipar Euskal Herritik aintzina begirako erronkak, 2. Bestelako langileria, 3. Kalitatezko enplegua, 4. Lan baldintzak, 5. Hizkuntzaren normalkuntza. Plangintzaren zutabeak. Lan lerroak, 6. Curriculumak, 7. Unibertsitatea eta 8. Hezkuntza Sistema Nazionala. Horren garapenerako, besteen artean, ondoko atalak eztabaidatu ziren:

- Elkarlana eta indar bilketa aldaketarako tresna.
- Euskal Herrirako Hezkuntza Sistema propioa harriz harri eraikitzea.
- Hezkuntza nazio eraikuntzarako

oinarrizko zutabe.

- Hezkuntza eskubide unibertsala.
- Irakaskuntza publikoa Hezkuntza Sistemaren ardatza.
- Euskal Herrirako eskolak ezaugarri zehatzak ditu.
- Langileen soslaia Euskal Herrirako Hezkuntza Sistemaren beharretara egokitzea.
- Langileriaren lan-baldintzak parekatzea.
- Hezkuntza Euskal Herriko prozesu politiko eta demokratikorako hauspo.
- Hizkuntza politika: ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko proposamena.
- ...



professional learning space

(+)

MU PLUS ezagutu, bizitza osorako zure ikasketa eremua. Praktikoa, berritzailea, multikanala, moldagarria eta internazionala den uribertsitate formazioa eskaintzen dizugu. Konpromisoa eta kooperazioa aintzat hartuta gizartearen eraldaketa bilatzen duen ikasketa espazioa. Aurki itzazu gaurko erronka profesionalei aurre egiteko prestatuko zaituzten bikaintasuna ardatz duten ikasketak.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Loramendi 4 / Apartado 23 / 20500 Arrasate-Mondragón / Tel. 943 71 21 83
www.mondragon.edu/muplus

Ibaizabalen herritartasunerako materiala



Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza **Herritartasunerako**



eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza ikasgai berria lantzeko mate-



riala argitaratu berri du Ibaizabal argitaletxeak, euskaraz eta ingelesez.

15.500 ikaslek baino gehiagok landu dute bertsozaritza ikastetxeetan Bertsozale Elkartearen eskutik

Bertsozale Elkarteak bertsozaritza lantzeko ikasturte osoko proiektua eskaintzen du ikastetxetan. Euskara ikasgaiaren barruan, astero lantzen dute bertsozaritza, irakasle espezialista batek gidatuta. Amaitzen den ikasturtean 300 ikastetxek eta 15.556 ikaslek hartu dute parte Bertsozale Elkartearen proiektuan.

Bertsozaritzaren Curriculum da ikastetxetako proiektuaren oinarri pedagogikoa. Ikastetxetako lanketaren helburuak, berriz, hauexek: hizkuntza-komunikaziorako konpetentziak gartztea, haurrek bertsozale eta euskararekiko jarrera positiboa izatea, bertsozaritza den kultur adierazpidearen oinarritzko ezagutza izatea eta jendeaurrekotasuna lantzea.

Ikastetxeek proiektuaren balorazioa egiterakoan honako ezaugarriak nabarmentzen dituzte: dinamikotasuna, hizkuntza lantzeko ematen dituen aukerak, irakasleek haurrekin lortzen duten hurbiltasuna eta ikastetxeko eki-



Andoaingo La Salle Berrozpeko ikasleak maiatzean eskainitako emanaldian. ARG: La Salle Berrozpe

taldietan parte hartzeko duten prestutasuna, eta ikasleek bertsozaritza klasea gustuko izatea.

Emanaldiak herrietan

Ikasturtean zehar egindako lanaren erakusgarri, haurrek prestatutako emanalditxoekin bertso jaialdiak eskaini dituzte (maiatzean) edo eskainiko dituzte (ekainean) ikastetxe eta herrietan. Gipuzkoan *Ikastetxeak Bertso-*

tan izeneko 70 jaialditan 8.030 haur igoko dira oholtzara. Iparraldean *Bertsozari Tiki Eguna* 20 ikastetxe eta 500 haur elkartuko ditu ekainaren 3an. Bizkaian 4.900 ikaslearen eskutik 35 *Kantaldi* eta ikastetxeen arteko sei *Topaketa* egingo dira. Araban *Topaketan* 750 ikasle elkartuko dira eskualdeka, eta Nafarroan 1.414 ikaslek hartu dute parte *Bertso Paper Lehiaketan* eta horri lotutako 5 saio egin dira.

Ikastaro proposamenak

Teklatua eta eskuzko idazketa

Ekainaren 15ean eta 16an UNEDen ikastaroa eskainiko du **Irune Ibarra** EHUko irakasleak:

- Komunikazioaren konpetentzia idazmen-dimentsioaren osagaiak.
- Eskuzko idazketa arina/geldiak idazketa prozesuan (eta ikasketetan) nola eragiten duen.
- ...

Informazioa:

<http://iruneibarra.mundua.com>

Sormena, ikaskuntza eta berrikuntza. Etorkizunerantz, hezkuntza bide berriak eraikitzen

Uztailaren 5ean eta 6an Donostiako Miramar jauregian izango da ikastaroa.

Ana Eizagirre eta **Esther Torres** EHUko irakasleek koordinatuko dute ikastaroa.

Emailen artean, ondokoak arituko dira:

- Dublingo **Alan Brucek** (Universal Learning Systems) "Transformation learning" eskainiko du.

- **Ramon Mtz. Murguia Urretak** "Lanbide Heziketan eta Ikas Komunitateetan berrikuntza kudeatzeko eredu baten eraikuntza".

- Finlandiako **Kitte Marttinene** (Haaga-Helia, University of Applied Sciences) "How do Finns experience creativity and innovation?"...

Informazioa:

www.sc.ebu.es/cursosverano

XI. hik hasi Udako Topaketa Pedagogikoak

Uztailaren 1ean eta 2an izango dira XI. hik hasi Udako Topaketak Donostian. Guztira 28 ikastaro eskaini dira. Zenbait ikastaro itxita daude honezkeror, baina oraindik ere baduzue beste batzuetan izena emateko aukera, kopuru mugatua izanik oraindik bete ez direlako, edo partehartzaile mugarik ez dutelako. Beraz, horietan izena emateko: www.hikhasi.com.

Zein ikastarotan eman daiteke izena?

1. jendaurrean hitz egiteko trebeziak garatzeko.
4. "Anbotoko damaren mundua". Euskal mitologia eta ipuinak kontatzeko tailerra.
8. Orkestra musikaterapeutikoak.
9. Osasun mentala.



10. Jolastu eta pentsatu. Sortzaileki pentsatzen ikasi Haur Hezkuntzan.
12. Hizkuntzaren jolasa.
13. Buru-mapak.
20. Egurra lantzen.

21. Papera eta kartoia.
22. Biodantza.
24. Europako dantzak.
25. Yoga saioak irakasleentzat.
28. Coaching.

“Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako” liburua



Pentsamenduaren autonomia eta **ikuspegi kritikoa** lantzeko liburua argitaratuko du Hik Hasik, laister.

Liburuan aurkezten diren ipuinak, nola ez, gozatzeko dira. Imajinario handia agertzen dute, eta, fantasiaren munduan bidaiatzera eta protagonistaren tokian jartzera gonbidatzen gaituzte.

Idazleak erabiltzen duen hizkuntza poetikoarengatik, ipuin bakoitzean sentiarazten dituen irudi desberdinegatik eta agertzen diren metaforengatik, taldean irakurriz gero, hainbat interpretazio egiteko aukera eskaintzen ditu.

Umorea erabiliz, errealitatea eta absurdoa nahasten ditu autoreak. Ipuin bakoitzean, ezusteak sortzen duen inaktuak, pentsarazten, eztabaidari bidea ematen eta ondorioak ateratzen lagun dezake.

Ipuin bakoitzak hainbat ikuspegi-

tik begiratzeko aukera eskaintzen duenez, norberak interpretatzea, iritzia aurkeztea, besteak entzutea, arrazoi-tzea, ideiak defendatzea, adostea... ahalbidetu dezake. Horrekin guztiarekin, pentsamenduaren autonomia eta ikuspegi kritikoa lantzen lagun daitekeela irizten dugu.

Ipuinen lanketak hainbat konpetentzia orokor eta espezifikoko lantzeko balio baditu ere, *Elkarrekin bizitzen ikasi*, *Komunikatzen ikasi*, eta, batez ere, *Izaten ikasi* garatzen laguntzeko bereziki baliagarriak direla da gure ustea.

Ipuinak adin jakin bati zuzenduta ez badaude ere, iradokizun gisa, adinka sailkatutako proposamena egiten ausartu gara, inori baliagarri suerta dakiokelakoan.



Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen maitezko eztabaidak utzi diguna...

>>> Bakerako hezkuntza plana ordezkatuz, Bizikidetzaren demokratikoa eta indarkeriari legitimazioa kentzea plana prestatzen ari da EAEko Hezkuntza Sailak. Zein da zure iritzia aldaketa horri buruz?

> Indarkeriaren aurka, noski!

Nik bakea nahi dut. Elkarlanean bizi, elkarri lagunduz, maitatuz... Horregatik, printzipioz, indarkeri mota guztien aurka nago. Planaren izenburua irakurrita *Bizikidetzaren demokratikoa eta indarkeriari legitimazioa kentzea* guztiz ados nago adierazten duenarekin. Ez al da hori bera orain arte eskola eta ikastoletan egiten ari ginena? Hala ez bada, ni tronpatuta nengoen.

Orain, gauza berria bezala aurkezten zaigu. Eta susmo txarra hartzen dut alde bakar batera begiratzen denean. Modu interesatuan, alderdikeri eta bazterketari hauspoa ematen. Ez, horrela planteatua, EZ!

Alde guztietara begiratu behar da, nork eta nola sortzen duen indarkeria, nola erantzuten zaion indarkeria inposatzaileari, norzuk eta nola ari diren jasaten eta nola lor litekeen indarkeria mota guztiak behin betikoz zokoratzea, gainditzea, bide berriak adostea... Horregatik, enuntziatuarekin ados egonda, goazen *Bizikidetzaren demokratikoa eta indarkeriari legitimazioa kentzea*. Hori lortzea denon artean, denona dena, denontzat. *Joxe. F.*

> Kontuz babes horiekin!

Kontu handiz ibili behar dugu zer eta zein babesten dugun. Zuk intentzio sano eta onarekin joka dezakezu eta kotarroa kontrolatzen duenak zure asmo on hori manipulatu, bere intereserako erabili. Horrela, ba, nik ez nioke inongo aukerarik emango beraien jokoan sartzeari. Beraiek egin eta beraiek jan dezatela. Guk orain arteko mahaian jaten jarraituko dugu. *M.Hernandez*

> Botere inposatzailea!

Ez da EAEn bakarrik. Nafarroan ere ildo beretik doa. Demokraziaren izenean, inposaketa da nagusi. Heziketaz arrastorik ez. Inposaketa, alderdikeriak eta fobia pertsonalak nagusitzen dira. Euskal Herriko egungo heziketa beste bide batetik doa. Une honetan, boterean daudenei ez zaie axola hezkuntza; interes partidista bakarrik dute gogoan eta hori inposatzea. Horrek, izen propioa du: Faxismoa. *Mikel Perez*

> Hezitzaileoi entzun!

Aupa Mikel! Guztiz ados nago diozunarekin. Hala ere, hezkuntzan, salatzear gain, proposamenak egitea da osasuntsuena. Ea asmatzen dudan. Eskoletan urteak daramatzagu lanean; gurasoekin, ikasleekin, langileekin, herritarrekin, edonorekin harremanetan aritzen gara egunero. Harreman horietan ohartzen gara pozaz, ilusioaz, sufrimenduaz, beharraz... Eta horiekin guztiarekin aritzen gara lanean, ahalik eta era orekatuenean.

Urtetan esan digute ez dela politikarik egin behar eskoletan. Akats izugarria da hori, politika dena delako, gosea ere politika zehatz baten ondorio baita. Politikari bai, alderdikeriak eta inposaketarik gabe. Horretan jarri behar dugu indarra. Munduan eta gure herrian, auzoan, eskolan, etxean... gertatzen ari dena aztertu behar da, nola ez! Eta modu ahalik eta objetiboan eta adostuenean erantzun beharra dago.

Orain inposatzen ari diren alderdikeriak baztertu eta modu globalagoan planteatu beharra dugu. Nola baztertuko dugu, bada, batzuen sufrimendua, besteena goraiapatuta? Norbanako eskubideak eta komunitate guztien eskubideak hartu behar dira kontuan. Hori ondo dakigu. Guk, behintzat, horiek guztiak hartzen ditugu kontuan heziketa prozesuetan.

Beno ba, lagunok, segi dezagun orain arteko bide ireki, demokratiko eta errespetuzkotik inposaketei aurre egiten. Osasun fisiko eta mentala guztiontzat! *Mila. A.*

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!


argitalpenak



Ehun ipuin hitz gutxitan

Joxan Ormazabal / Jon Zabaleta
ELKAR

Bizitzako kontuak dira, umorez beteak, pentsatzeko eta gozatzeko, haurrentzat eta haur izan zirentzat ere egokiak. Liburu honetan, irudimena eta umoreaz gain, bizipenetatik ateratako hausnarketa motz baina sakonak bildu zituen bere azken liburuan maiaztaren hasieran joan zitzaigun Joxan Ormazabal idazleak. •



Nasreddin

Pablo Sastre / Josemi Goyena
PAMIELA


Nasreddin Hodjaren ateraldiak bildu ditu lan honetan Pablo Sastrek. Sufi tradizioko pertsonaia hau Anatoliako penintsulan bizi omen zen XIII. mende inguruan. Gurean Pernaldo Amezketa izan zen bezalaxemilaka istoriotako protagonista izan zen, eta horietako batzuk aurkituko dituzu. Txiste, adar jotze, irakaskuntza eta bizitzeko modu bat islatzen dituzte guztiak. •



Ebelina Mandarina

Castillo Suarez/Leire Urbeltz
EREIN

Amak eta amonak bezala du izena; Ebelina. Horregatik deitzen diote Ebelina Mandarina. Bere etxea kolore askotakoa da. Urdina du goiko alde, udako zerua bezala eta gorria behekoa. Eguzkeraren aldatzen da bere bizi tokia, eta ez da barraskiloa; Ebelina zirku batean bizi da. 2009ko Lizardi Saria irabazi zuen Castillo Suarezek neska ilegorri –bartzuetan laranja– honen abenturekin. •



Historiaurrea urratsez urrats

E. Amundarain / I. Glez, Garai / A. Stürtze
GAIK

Gure arbasoen aspaldiko –oso aspaldiko– nondik norakoak joarritzen ditu liburuak. Besteak beste, izotzaldietan nola bizi ziren, zer ehizatzen eta jaten zuten, su eta lanabesak nola asmatu zituzten, hizkuntza noiz sortu zen, arteaz gozatzeko gaitasuna nola garatu zuten... Deskubritu ahal izango dugu liburu honekin. •



Akiles eta dortoka

Seve Calleja / Juan Luis Zabala
ALBERDANIA

Kondaira baten arabera Akiles borrokaldi batean hil zen Troyako gerlari baten geziak harrapatuta. Dena den, bazen Akilesen inguruko beste paradoxa bat; antza, gerlari trebe hura ez zen sekula dortoka harrapatzeko gai izango. Heroiaren eta dortokaren arteko harremanaren inguruan ari da liburuak. •



Armix Max-Mixhez kuxila

Elhuyar Fundazioa
ELHUYAR EDIZIOAK

Zientziak eta esperimenduak gustuko dituzula? Bada, liburu honetan 29 esperimendu dituzu, sei multzotan banatuta: janariak, gertaera fisikoak, erreakzio kimikoak, naturako elementuen joerak, eguraldia eta estatistika. 8-10 urteko neska-mutilentzat pentsatuta dago; esperimenduak egin eta horien oinarriez jabetzeko. •

... nora joango gara?

Oteiza bere espazioan Jorge Oteiza Museoa

Altuzan (Nafarroa) dago Jorge Oteiza Museoa, landa inguruan eta Iruñetik 9 kilometrora. Museoak badu eginkizun nagusi bat: Oteizaren obra eta pentsamendua ikertzea eta behar duen zabalkundea ematea.

Jorge Oteiza Museoko erakusketa iraunkorra eskultore eta artista oriotarraren bilduma pertsonalak osatzen du. Orotara, 150 eskultura eta Klarion Laborategiko 300 pieza daude ikusgai, Jorge Oteiza fundazioak gordetzen duen bildumaren funtsetatik datozenak. Horien artean, orain arte ikusi ahal izan ez diren 35 obra baino gehiago daude, igeltsuan eginak eta Oteizak Arantzazuko (Oñati, Gipuzkoa) basilikarako egindako estatuen proiektu ezagunarekin lotura dutenak. Horiez guztiez gain, Oteizaren 40 marrazki eta collage ere jarri dituzte ikusgai erakusketa osatzeko; halaber, argitaragabeak ziren eskultorearen hainbat agiri eta eskuizkribu ere ikus daitezke.

Altuzako museoa bisitatzen duenak, erakustoki bat ez ezik, Jorge Oteizaren bizilekua izan zena ere ezagutu ahal izango du. Francisco Javier Sáenz de Oiza arkitektoaren obra da museoaren eraikina; hormigoi gorrixkaz eginko kubo handi bat egin zuen, espazio oteizarraren metafora baten antzera. Gainera, 1975az geroztik Jorge Oteiza-



ren bizilekua izan zena lotu zion museoari. Lantegi eta etxe izan zuen hura bisitatzeko aukera ere izango da, beraz. Museoaren webguneak dioenez, Altuzako etxe hartan aurkitu zuen "poetika eta saiakera sormena lantzeko zein ikerketa lanean aritzeko behar zuen bakardadea. Dena dela, Oteizarekin harremanetan zegoen komunitate intelektualez elkargune ere izan zen Altuzan".

Ikastetxeentzako eskaintza

Nafarroako Egues ibarrera bisita egin eta Altuzan ikusi nahi izanez gero, Oteiza Museoak badu ikastetxeentzako bereziki prestatutako eskaintza didaktikoa, Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergorainokoa.

Lehen Hezkuntza

Lehen Hezkuntzako irakasle eta ikasleentzat pentsatutako programa bi


ataletan banatzen da. Izan ere, museo-ara bisita egin aurretik, ikastetxean hainbat gai lantzeko proposamena egiten du museoak. Lehendabiziko zikloan (6-8 urte) museoari, artelanei eta artistei buruzko kontzeptu orokorrak landuko dira, eta ondoren, bisitaldia egiten dutenean, museoaren hezitzailea arduratuko da kontzeptu horiek Jorge Oteizaren obrarekin lotzeaz. Bigarren zikloko eta hirugarren zikloko (9-12) ikasleen eskaintzan, aldiz, Jorge Oteizaren lana eta museoaren bera izango dira ardatz nagusiak.



Behin ikastetxean landu beharrekoa landuta, museora bisita egitean, lehenengo ziklokoentzat *Begizukitu, eskuz begiratu* ibilbidea proposatzen du museoak.

Hurrek begirada erabili beharko dute bildumako obren egiturek eta uki-menak duten zerikusia aurkitzeko. Bigarren eta hirugarren zikloko ikasleentzako ibilbideak *Geometriaren lengo-ai-a* du izena. Gaztetxoek ibilbide horretan Oteizaren obran ezkatutzen diren forma geometrikoak aurkitu eta aztertuko dituzte, bai eta eskulturak ulertzeko hainbat elementu ere: dimentsioak, planoak, bolumena...

Bigarren Hezkuntza



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskaintzak ere ikastetxea eta museoan ditu agertoki nagusi, eta ikasleei Oteizaren obra hurbiltzea du xede, eta baita euren artean aukeratutako lan batzuen gaineko elkarrizketa sustatzea ere. Artearekin lotuta, kontzeptu orokorretara aztertzeko lehen hurbilketa bat egingo litzateke ikastetxean, eta horiei buruzko eztabaida sortzeko aukera baliatu. Ondoren, museoan kontzeptu horiek Jorge Oteizaren obrarekin lotzeko aukera izango da.



OTEIZA MUSEOA

Aldapa kalea, 7
31486 ALTZUZA
Nafarroa



Informazio gehiago:

- www.museooteiza.org
- Tel: 948 332074
- Fax: 948 332066
- info@museooteiza.org



Eskaintzak

BISITA GIDATUAK

Era berean, Oteiza Museoan aldi baterako hainbat erakusketa antolatzen dituzte urtero, artistaren obrako hainbat alderdi ikertzen eta aztertzen laguntzeko eta haren bizitza ezagutzeko. Erakusketa horiek ere ikastetxeetara hurbildu nahi izaten dituzte, eta horietan ibilbide gidatuak egiteko proposamena egiten diete irakasleei.

ORDUTEGIA

Neguko ordutegia (irailaren 16tik ekainaren 14ra)

Asteartetik ostiralera: 10:00etatik 15:00etara.

Larunbatetan: 11:00etatik 19:00etara.

Igandeetan eta jaiegunetan: 11:00etatik 15:00etara.

Astelehenetan: itxita.

Udako ordutegia (ekainaren 15etik irailaren 15era).

Asteartetik larunbatara: 11:00etatik 19:00etara.

Igandeetan eta jaiegunetan: 11:00etatik 15:00etara.

Astelehenetan: itxita.



atzeko atetik



Maddalen ARZALLUS

BERTSOLARIA

Gogoan dut ikastolako lehen urtea hiru urte besterik ez banituen ere. Untxitegia zirudien gure ikastolak baina izugarri gustatzen zitzaizkigun bertako zelaia, kulunpio handia, gela txikiak eta baita irakasleek ematen ziguten goxotasuna ere. Garai hartan ez ginen asko Hendaiaiko ikastolan. Baina, egia esan, guri hori berdin zitzaigun, guztiok ezagutzen baikenuen elkar eta horrek famili giroan sentiarazten baikituen. Nire anaia zaharren gelan zegoen eta jolas garaia heltzen zen bakoitzean, beregana joaten nintzen futbolearen ari-tzen ziren zelaira, musu txiki bat lapurtzeko asmoz.

Txikitik handira?

Orduan, euskaraz besterik ez nekien nik eta hori zen ikastolako hizkuntza bakarra, frantseseko klaseak alde batera utzirik, noski.

Handik Ziburuko kolegiara egin nuen salto, ordura arte “handien” ikastola iruditu zitzaidan hartara, 11 urteko mukizu bihurri bat besterik ez banintzen ere. Lagun berriak, irakasle berriak, eta hizkuntza berriak ikasi eta ikusi nituen bertan. Ez, ez naiz ingelesaz hitz egiten ari, frantsesaz baizik. Izan ere, kolegioan ez ginen asko elkarren artean euskaraz aritzen ginenak.

Kolegiotik lizeora eta lizeotik Gasteizeko Letren fakultatera. Txikitik handira pausoz pauso joan naiz oinez. Baina ez dakit ziur handitasunak txikitasunera eraman ez ote nauen. Izan ere, hasieran esan dut nola gure hizkuntza bakarra euskara zen, frantsesa arazorik gabe ikasi bagenuen ere. Urteak eta eskolak aurrera joan diren heinean ordea, euskaraz ikasteko nire aukera gutxitzen joan da. Itzulpengintza eta interpretazio ikasketak ari naiz egiten Gasteizen; paperetan jartzten duenaren ara-

bera, euskaraz. Baina begira gauzak nola diren; aurten, euskaraz, bi ikasgai besterik ez ditut izan. Ez dut esaten ikasketekin gustura ez nagoenik, alderantziz; baina hemen gauzak diren bezala kontatu behar dira.

Orain entzuten ari naizenez, hezkuntza hiru-eleduna proposatu nahi digute, ingelesari ere lekua eginez. Niri, hizkuntza asko norbereganatzea behar-beharrezkoa iruditzen zait ametsetako hezkuntza batera heltzeko; ez naiz alperrik Letren fakultatean ikasten ari. Baina ez dakit zergatik, edo agian badakit, susmo txarra hartzen diot kontu honi. D ereduan ikasten ari garen gazteoi bi ikasgai euskaraz eta beste zortzi gaztelaniaz ematen baldin badizkigute, nork ziurtatzen dit niri hezkuntza hiru-eledu-nean euskarak behar adinako lekua izango duenik? Nork dio herri eta hiri erdaldunetako haur guztiak euskaraz behar den maila lortuko dutenik?


Nik ez diot hala izango ez denik, nik jendeak galderei erantzutea besterik ez dut nahi.



Haurra gai da komunikaziorako behar dituen egiturak sortzeko eta antolatzeko; baina aurretik, jolasean integratzen diren portaeren eta mintzaeren eskemak bereganatu behar ditu.

Imanol Urbietta

Adi! Laster, hausnarketa sustatzeko tresna berria eskuragarri



idazlea zeu zara,
irakurtzen duzulako

**130 ipuin eta 130 marrazkiz osatutako
liburua
+
lanketarako proposamen didaktikoa**

hh

LH izan nahi dut



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Aurrematrikula: maiatzaren 31tik ekainaren 11ra

www.quieroserfp.com